¹⁰² Varan Sarkisian & Hektor Iglesias, *Joseph-Augustin Chaho, Aitor, Légende cantabre / Aitor: Leyenda cántabra / Aitor: kantabriar kondaira*. Erevan-Bilbao 2008.

¹⁰³ J. M. Bedachagar, *Agosti Chaho. Urdiñarbe 1988*. Maule, 56.



Beste ikerketak

Euskera. 2011, 56, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564



Koldo Mitxelena bere diskurtsoan estrategikoki integratzen ditu enuntziatu parentetikoak

Koldo Mitxelena integra estratégicamente los
enunciados parentéticos en su discurso

Koldo Mitxelena intègre stratégiquement dans son
discours les énoncés parenthétiques

Parenthetical remarks included by Koldo Mitxelena
in his strategic discourse

AZPEITIA EIZAGIRRE, Agurtzane¹
Mondragon Unibertsitatea

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

¹ Bihotzez eskerrak eman nahi dizkiot nire tesi zuzendari eta zuzentzaile izan dudan Elixabete Perez Gazteluri, egindako lan eskergagatik eta emandako etengabeko laguntzagatik. Harekin batera, ez nuke ahaztu nahi ingeleseko itzulpenetan beti gogo onez laguntzen didan Larraitx Arizna-barreta eta baita artikulua hobetzen lagundu didan kanpo aditua ere.

Lan hau ikerketa zabalago baten zati da, *Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurso-estrategiak: enuntziatu parentetikoak* (A. Azpeitia, 2010) izenburua daraman doktore-tesiko ataltxo baten zati laburtu eta birformatua, hain zuzen. Artikulu honetan, Koldo Mitxelenaren euskarazko liburu-eta zinema-kritiketan enuntziatu parentetikoaren kokapena edo integrazio-gunea zein den aztertzen saiatuko gara, bai alderdi sintaktikoa kontuan hartuz eta baita mintzagai-egiturari edo alderdi komunikatibo-diskurtsiboari erreparatuz ere.

Hondarrean, artikulua jomuga nagusiak honako hauek dira: Koldo Mitxelenaren diskurtsogintzan modu sistematikoan errepikatzen diren erregularitateak formulatu eta hortik ondorioztatzea Koldo Mitxelenak enuntziatu parentetikoak ez dituela edonon eta edonola tartekatzen; hau da, horien kokagunea edo distribuzioa komunikazio estrategia batzuen zerbitzura dagoela ohartzea.

Hitz-gakoak: enuntziatu parentetikoak, distribuzioa, egitura komunikatiboa, egitura sintaktikoa.

Este artículo es parte de una investigación más profunda y de mayor envergadura; precisamente, se basa en una sección resumida y reformulada de la tesis doctoral titulada como *Estrategias discursivas de la prosa vasca de Koldo Mitxelena: estudio de los enunciados parentéticos* (A. Azpeitia, 2010). En el presente estudio se pretende analizar la distribución o el punto de integración de los enunciados parentéticos en los artículos literarios y cinematográficos del lingüista vasco Koldo Mitxelena, y para ello se tendrán en cuenta tanto la estructura sintáctica como la comunicativa.

El objetivo principal del artículo es remarcar las regularidades que en el discurso del lingüista se repiten sistemáticamente y de ahí concluir que la disposición de los enunciados parentéticos en la prosa vasca de Koldo Mitxelena no es arbitraria sino que responde a unas estrategias comunicativas concretas.

Palabras clave: enunciados parentéticos, distribución, estructura comunicativa, estructura sintáctica.

Cet article fait partie d'une recherche particulièrement approfondie et de grande envergure qui se fonde sur un chapitre résumé et reformulé de la thèse doctorale intitulée *Stratégies discursives de la prose basque de Koldo Mitxelena: étude sur les énoncés entre parenthèses* (A. Azpeitia, 2010). Cette étude prétend analyser la répartition ou le niveau d'utilisation des énoncés entre parenthèses dans les articles littéraires et cinématographiques du linguiste basque Koldo Mitxelena prenant à cet effet en considération la structure syntaxique mais aussi l'aspect communicatif.

L'objectif principal de cet article est de souligner les régularités qui se répètent systématiquement dans le discours du linguiste pour en conclure que la disposition des énoncés entre parenthèses dans la prose basque de Koldo Mitxelena n'est pas arbitraire mais répond plutôt à des stratégies concrètes de communication.

Mots-clés : énoncés entre parenthèse, répartition, structure de communication, structure syntaxique.

This paper is part of a broader research project. Precisely, it is based on a section of the doctoral thesis entitled: *Discursive Strategies in the Basque Prose of Koldo Mitxelena: A Study of Parenthetical Statements*. The article revises the syntactic position of interpolative statements in the cinema and literature reviews of the Basque linguist Koldo Mitxelena. The study considers both syntactic and communicative aspects.

The main objectives of this paper comprise the following: 1) to draw conclusions from the systematic recurrence in the position of parenthetical statements 2) to highlight the fact that interpolative statements are not positioned arbitrarily, but rather they encompass a communicational purpose.

Keywords: parenthetical statements, distribution, syntactic structure, communicative structure.

1. Sarrera

Artikulu honetan Koldo Mitxelenaren prosan enuntziatu parentetikoek hartzen duten kokagunea aztertuko dugu. Alderdi hau jorratzeari oso interesgarri irizten diogu, bere prosa ulertzeko ez ezik kokagune bat edo beste bat hautatzeak komunikazioaren ikuspegitik sortzen dituen ondorioak ere ezberdinak izan daitezkeelako. Hau da, azterketa hau egiteak eskain diezaguke gisa honetako enuntziatu parentetikoak era egokian aditzera emateko argia eta norabidea; komunikatu nahi dena era egokian, euskal eran alegia, emateko lagunduko digun norabidea. Gerta daiteke, izan ere, horrelako enuntziatuak neurririk gabe eta nahi den tokian tartekatuta, testuaren komunikagarritasunari mesede baino kalte gehiago egitea:

Kontuz erabili ezean, koma arteko zatia tartekatzeak izan ditzake bere alde txarrak ere: esaldia luzatzea, zatikatzea, korapilatzea, iluntzea... Baliabide hori erabiltzen jakin egin behar da, neurriz eta kontuz, helburua² zein den ahaztu gabe: lehenengo irakurraldian ulertzeko moduko idazkia sortzea. (Zubimendi & Esnal, 1993, 227).

Hondarrean, artikulua jomuga nagusiak honako hauek dira:

- a) Koldo Mitxelenaren diskurtsogintzan enuntziatu parentetikoaren distribuzioan modu sistematikoan errepikatzen diren erregularitateak formulatzea, joerak markatze aldera.
- b) Joera horiek zergatik eta zertarako hautatu dituen argudiatzea; hots, komunikazio-estrategia bati erantzuten dioten ikustea.
- c) Ohartzea eta nabarmentzea Koldo Mitxelenak bere diskurtsoan enuntziatu parentetikoak ez dituela edonon eta edonola tartekatzen, baizik eta modu hausnartuan egiten duen enuntziatu parentetikoaren distribuzioa komunikazio-estrategia batzuen zerbitzura dagoela.

² Helburua hori bada. Gure ustez, ordea, neurriz, tentuz eta behar den tokian ibiltzen jakitea ezinbestekoa da esatariaren xedea (edo idaztera bultzatu duen helburua) berak nahi bezala norentzakoak uler edo adi dezan; izan ere, enuntziatu parentetikoaren izateko arrazoia komunikatzeko estrategia edo bitarteko izatea da, eta ez norentzako bidean galaraztea.

Jomuga horietara iristeko, Koldo Mitxelenaren liburu-eta zinema-kritiketarik³ ateratako adibideez baliatuko gara. Horretarako, artikuluko honetan, honako ibilbidea egingo dugu:

- Hasteko, labur-labur, lan honetan darabiltzagun kontzeptu eta ildo nagusiak kokatzen saiatuko gara. Batetik, lanean darabilgun «enuntziatu parentetiko» deizioa hesitu eta definituko dugu; bestetik, «distribuzio» diogunean zein egitura motaren arabera integrazio-puntua hartzen dugun kontuan aipatuko dugu.
- Segidan aztergai dugun corpuseko enuntziatu parentetikoaren distribuzioa zein den zehaztuko dugu; hau da, enuntziatu parentetikoak oinarriko enuntziatuan hartzen duen lekuari edo posizioari (zein funtzio gramatikalen ondoren edo tartean agertzen den) erreparatuko diogu eta joerak markatu.
- Azkenik, distribuzioak berak ikusaraziko digu Koldo Mitxelenaren diskurtsogintza ezaugarritzen duten enuntziatu parentetikoek komunikazio-estrategia batzuei erantzuten dietela eta ez dituela arbitrarioki erabiltzen.

2. Kontzeptuak hesitzen

Hitzen ordena eta distribuzioa

Behin baino gehiagotan esan (eta egiaztatu) izan da euskarak hitzen ordena nahiko librea duela.

Ongi aski dakigun bezala, eta gramatika gehienetan aipatua izan da kontu hau, hitz ordena aski librea dugu euskaraz. Bi arrazoiengatik gertatzen da halaxe:

- 1) Osagaien zeregin gramatikala (edo gramatika funtzioa) ez baitu tokiak markatzen.

³ Guk tesian (Azpeitia, 2010) azterkizun izan dugun corpusa Koldo Mitxelenaren kritikak izan dira, liburu-eta zinema-kritikak; hain zuzen, Euskal Editoreen Elkarteak kaleraturiko Klasikoen Saileko 21, 22 eta 23 zenbakiak dituzten liburuxketan jasotakoak.

- 2) Eginkizun edo funtzio horiei ez baitagokie toki finko ezin aldatuzkorik.

Horiek horrela izanik, maiz esana izan den bezala, ordenak beste gisa batez garrantzia badu, eta delako orden askatasun horrek, ondorioz, bere mugak ere bai. (Euskaltzaindia, 1987, 22).

Bai, ordena librea dugu eginkizun edo funtzio gramatikalak baizik ez baditugu kontuan hartzen; ez da librea, ordea, baldin eta perpausaren bigarren egitura edo «mintzagai egitura» bezala ezagutzen duguna aintzat hartzen badugu.

Euskaltzaindiaren gramatikaren arabera (1987, 25), izan ere, perpausetan bi egitura agertzen zaizkigu bata bestearen gainean: *funtzio egitura* eta *mintzagai egitura*. Lehendabizikoak funtzio sintaktikoarekin du zerikusia, kasuek ematen diguten informazioarekin, alegia. Bigarrena, aitzitik, *informazio klasen* edo *hizketaren unibertsoan* oinarritzen da.

Beraz, badirudi perpausaren barneko sintagmen antolaketa ere, hots, hitzen ordena, helburu eta funtzio ezberdinen arabera gauzatzen dela. Hau da, hitzen ordena horiek funtzio-egitura markatzeko helburuarekin erabil daitezke, edota, informazio ezaguna (mintzagaia) eta berria (irazkina) esapide batean estrategikoki ordenatzeko.

Eusebio Osari jarraituz (1990, 109), esan dezakegu hizkuntzak bi funtzio dituela predikatuaren eta honen argumentuen arteko erlazio lineala markatzerakoan: pragmatikarena eta gramatikarena, hain zuzen.

Beste hitz batzuez esanik, hizkuntza batek bere hitz-ordenaketa pragmatikoki erabil dezake, informazio ezaguna eta berria esapide batean estrategikoki ordenatzeko eta adierazteko; edota ordena hori gramatikalki erabil dezake, hau da, erlazio gramatikalak, komuntadura, subordinazioa, koordinazioa eta abar markatzeko.

Guk ere artikulu honetan bi egiturei erreparatuko diegu: batetik, egitura gramatikalaria; hots, enuntziatu parentetikoak zein funtzio gramatikalen ondoren, aurretik edo zein funtzioaren tartean kokatzen dituen aztertuko dugu. Bestetik, berri, egitura komunikatiboa hartuko dugu aintzat; hau da, enuntziatuaren barnean zein informazio-motaren ondoren tartekatzen dituen

enuntziatu parentetikoak. Bestela esan, predikatu eta argumentuen edo osagarrien arteko ordena-modua kontuan izanik, informazio ezagunaren eta berriaren edo informazio tematikoaren eta errematikoaren arteko segida horretan, zein gune hartzen duten enuntziatu parentetikoek aztertzen saiatuko gara.

Enuntziatu parentetikoa

Aztergai honetan aurrera egiteko, ezinbestekoa da lanean darabilgun enuntziatu parentetikoaren ezaugarriak⁴ laburbiltzea:

Enuntziatu parentetikoak, labur esateko, esatariak bere asmoak erdies-teko norentzakoari⁵ egiten dizkion keinu edo arrastoak dira, testutik bertatik mezuaren interpretazioa (nora)bideratu eta gidatzeko erabiltzen dituenak. Esatariaren helburua bere intentzio-xedea norentzakoak atzematea da eta horretarako ahalegin guztiak egingo ditu, norentzakoarekin konplizitatezko harremana sortzeaz gain, bere enuntziatua modalizatu, birformulatu eta testuinguratzen, harik eta esan duenaren eta esan nahiko zukeenaren artean zirrikiturik txikiena ere egon ez dadin eta diskurtsoaren argudio-hariak eta interpretazioak esatariak nahiko zukeen bidetik jarrai dezaten.

Esan dugunaren adierazgarri, hona hemen adibide bat. Letrakera lodiz paratu dugu enuntziatu parentetikoa, edo E2 bezala izendatuko duguna,

⁴ Informazio zehatzagoa nahi duenak jo beza (Azpeitia, 2010; 2011) lanetara.

⁵ Norentzako Kerbrat-Orecchioni (1986, 1998), Enuntziatioaren Hizkuntzalaritzaren barnean kokatu ohi den autorea, hartzaile-norentzakoaren konplexutasunaz jabetzen da. Norentzako dio-gunean honako hau adierazi nahi dugu: esatariak mezua igortzean gogoan duen gizabanakoa; norentzat egiten duen bere mezua, alegia. Honekin txandakatzen ditu esatariak bere zereginak. Esatariak berariaz hautatzen du, buruan duen norentzako hipotetikoa da, izan ere.

Norentzako terminoa Escandellentzat (1993) ere ez da erabat hartzailearen parekoa. Norentzakoak bakar-bakarrik gizabanakoak izendatzen ditu, ez deskodetze-mekanismoak, esate baterako. Norentzako ez da, bestalde, entzule soila, entzulea hizkuntza-kode jakin bat aditzeko gaitasuna duen edonor baita; norentzako, berriz, mezua igorri zaiona (esatariak gogoan duena) eta, beraz, komunikazioa (eta esatariaren diskurtsoa) baldintzatuko duena da.

eta letrakera arruntaz oinarritzko enuntziatua, edo E1 bezala izendatuko duguna:

- Hori sortzeko batu dira, **ezkontzaz ala sasi-ezkontzaz ez daki-gu**, Italiako edertasuna –**Gina Lollobrigida deritza**– eta Ipar Ameriketako trebetasuna, Robert Z. Leonard izenekoa, agi danean. (ZIN⁶:157).

Adibideak erakusten digunez, egitura hau, bigarren graduko puntuazio-markez (koma pareak, marrak eta parentesiak) demarkatuta egoteaz gain, ondorengo lau ezaugarri hauek bete beharko ditu:

- Gutxienez bi enuntziatu izango ditugu jokoan: E1 eta E2 enuntziatuak.
- Bi enuntziatu horiek elkarrekin gurutzatzen dira, eta oro har, E2 enuntziatuak E1 enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsiko du.
- Bi enuntziatu horiek beregainak edo independenteak dira.
- E2 enuntziatuak dakarren informazioa makroegituran (edo metadiskurtsoan) kokatzen da.

Goian aipatutako bigarren ezaugarria da distribuzioaren alorra lantzerakoan kontuan hartuko duguna eta horretarako lehenik alderdirik formale-nari erreparatuko diogu; hau da, enuntziatu parentetikoak oinarritzko enuntziatuan hartzen duen lekuari edo posizioari (zein funtzio gramatikalen ondoren edo tartean agertzen den), nolabait joerak zeintzuk diren begiztatu eta ahal bada, eta ahal denean, modu sistematikoan errepikatzen diren haiekin erregelak edo erregularitateak formulatzeko. Zenbaitetan erregularitate-ahulezia⁷ kontuan izanik, joerak markatzea aski izango da. Izan ere, uste dugu agertuko ditugun datuak aski adierazgarriak izango direla Mitxe-

⁶ Laburdura hau erabiliko dugu adibidea zinema-kritikei dagokiela aditzera emateko eta LIB I eta LIB II, berriz, liburu-kritiketarik ateratako adibideentzat utziko dugu.

⁷ Azterketa honetan, ordea, aurre premisatzat jo dugu E1 oinarritzko enuntziatuak, gutxienez, aditz nagusi bat eramatea (corpuseko adibiderik gehienetan hala gertatzen delako), eta, beraz, izen baten mendekoak alde batera utzi ditugu. Horrek ez du esan nahi, ordea, E2 enuntziatu parentetikoak aditzik gabekoa denean alde batera utzi dugunik. Beraz, corpuseko adibide guztiak ez ditugu aztertu, baina bai gehienak; zein joera nagusitzen den ondorioztatzeko adina bai, behintzat.

lenak enuntziatu parentetikoak oinarritzko enuntziatuan integratzeko, nagusiki, zein gune hautatzen dituen jakiteko; hau da, joerak markatzeko.

Besterik da, oso besterik gainera, joera horiek zergatik eta zertarako hautatu dituen argudiatzea; hots, komunikazio-estrategia bati erantzuten dioten edo horien kokagunea estrategikoki hautatu ote duen argudiatzea. Horretan ere, axaletik bada ere, saiaturko gara.

3. Enuntziatu parentetikoaren integrazio-gunea: distribuzioa

Distribuzioaren azterketa honetan, E2 enuntziatuak E1 oinarritzko enuntziatuko zein egitura sintaktiko hausten duen, edo, behintzat, E1 enuntziatuan zein leku edo gune hartzen duen hartuko dugu kontuan. Egia da –eta tesia⁸ bera da horren lekuko– enuntziatu parentetikoa oinarritzko enuntziatuaren aurretik (adibideen % 0.7) nahiz ondoren ere joan daitekeela (adibideen %7.6), baina guk artikulu honetan tartean edo oinarritzko enuntziatuaren egitura hautsiaz kokatzen direnei erreparatuko diegu, gehiengoa izanik, Mitxelenaen joera hobeto islatzen dutelako.

Eta oinarritzko enuntziatuan duten kokapenean, formalki, lau gune nagusi bereiziko ditugu:

- a) Oinarritzko enuntziatua perpaus nagusiak edo lokabeak osatzen duenean, perpaus nagusiaren barnean kokatuko da.
- b) Maila bereko bi perpausen arteko mugan.
- c) Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean.
- d) Mendeko perpausaren barnean.

E1 oinarritzko enuntziatuak duen forma sintaktikoa erabiliko dugu, beraz, ardatz kokagune nagusiak zehazteko.

⁸ Azpeitia, 2010.

3.1. E1 formalki perpaus nagusiak (lokabeak) osatzen duenean

Oro har, tartekatzerakoan, E2 enuntziatu parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuaren egitura sintaktikoa hautsi egin ohi du. Holakoetan lau integrazio-gune atzeman ditugu:

1. Mintzagaia + [E2] + fokua + aditza
2. «Fokua + aditza» bikotearen ondoren
3. Fokuaren eta aditzaren artean
4. Sintagmaren egitura sintaktikoa hautsiaz⁹:

3.1.1. *Mintzagaia + [E2] + fokua + aditza*

E2 enuntziatu parentetikoek E1 oinarrizko enuntziatuan hartzen duten lekua ugaria ez ezik askotarikoa ere bada. Halarik ere, joera edo isuri nagusiak aipatuko ditugu, maiz, kokapena ez delako arbitrarioa, estrategikoa baizik:

Enuntziatu parentetikoak (E2) oinarrizko enuntziatu lokabearen egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Adibide kopurua	Perpaus lokabeen % zenbat	Corpuseko adibide guztien %
MINTZAGAIA + [E2] + FOKUA + ADITZA			
A. Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko muga	114	%36.53	%19.79
<i>Subjektua + [E2] + aditza</i>	9	%2.88	%1.56
<i>Subjektua + [E2] + adberbio-osagarria¹⁰ + aditza</i>	76	%24.35	%13.19

⁹ Haustura horiek gramatikaren ikuspegitik oso zuzenak ez direnez gero (edo bitxiak behintzat gertatzen direnez gero), aparteko taula batean ikusiko ditugu.

¹⁰ Adberbioa adigaia EGLU I-ek darabilen zentzuan ulertzen dugu; hau da, aditzari laguntzen berezko zeregina duen klase bezala, eta bertan, adizlagunak –bai Izen sintagma deklinatuaren bidez, bai postposizioaren bidez sortuak– eta aditzondoak bilduko dira, baita mendeko esaldi batez osatuak ere.

Enuntziatu parentetikoak (E2) oinarritzko enuntziatu lokabearen egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Adibide kopurua	Perpaus lokabeen % zenbat	Corpuseko adibide guztien %
– Subjektua+ [E2]+ ezezeko aditzondoa+aditza	28		
– Subjektua+ [E2]+ba+aditza	10		
– Subjektua+ [E2]+ moduzko aditzondoa+aditza	22		
– Subjektua+ [E2]+ bestelako adberbio osagarria	16		
<i>Subjektua+ [E2]+ zehar osagarria+aditza</i>	1	%0.32	%0.17
<i>Subjektua+ [E2]+ osagarri zuzena+aditza</i>	19	%6.08	%3.29
<i>Subjektua+ [E2]+ osagarri predikatiboa+aditza</i>	9	%2.88	%1.56
B. Osagarri zuzena topikalizatuz	9	%2.88	%1.56
– IS NOR+ [E2]+aditza	1		
– ISNOR+ [E2]+ fokua+aditza			
– ISNOR+ [E2]+ ISNORK+aditza	4		
– ISNOR+ [E2]+ adberbio osagarria+aditza	4		
C. Zehar osagarria topikalizatuz	7	%2.24	%1.21
D. Adberbio osagarria topikalizatuz	57	%18.26	%9.89
– Adberbio osagarria+ [E2]+aditza	4		
– Adberbio osagarria+ [E2]+ fokua+aditza			
– Adberbio osagarria+ [E2]+ osagarri zuzena+aditza	21		
– Adberbio osagarria+ [E2]+ adberbio osagarria+aditza	25		
– Adberbio osagarria+ [E2]+ zehar osagarria+aditza	2		
– Adberbio osagarria+ [E2]+ subjektua+aditza	5		
E. Lokailuaren ondoren	18	%5.76	%3.12
GUZTIRA	205	%65.70	%35.59

Datuek erakusten digutenez, mintzagaia hanpatuz, mintzagaiaren eta irazkinaren edo multzo errematikoaren artean kokatuko du maizenik enuntziatu parentetikoa. Perpaus lokabe guztiak kontuan izanik, %65,70 osatzen dute integrazio-gune hori hautatzen duten adibideek. Mintzagai hori, funtzio-egiturari dagokionez, batzuetan *subjektuak* osatuko du, eta bestetan, *osagarri zuzenak*, *zehar osagarriak* nahiz *adberbio-osagarriak*.

A) Subjektua topikalizatuz, subjektuaren eta predikatuaren arteko mugan

Enuntziatu parentetikoa, gehienetan, mintzagaia topikalizatu edo hanpatzeko erabiliko du, eta horrela subjektuaren eta aditzaren artean geldiduna egiteko aukera eskainiko dio.

Ezkerraldekoa topikalizatzean, ordea, jarraian datorren predikazioaren edo multzo errematikoaren buruan (ia) behin ere ez du aditza paratuko. *Ia behin ere ez* diogu, izan ere, corpuseko adibide batzuetan (%4.4) enuntziatu parentetikoa justu aditzaren aurrez aurreko posizioan paratuko du:

- Haren gogo erne, beratx eta irrikor, bare eta aldartetsuak **–iguzki eta laino, eta hodei nabarrak zeruan barrena lasterka**– *opa zuen* bizi eta heriotza hortxe dago, hitz gutxitan emana, «Urte giro»-n azken hogeitasei bertsotan, eta ez luke inork, burniz eta tupikiz ondu nahi balu ere, irudi sendoagorik sortuko. (LIB I: 66).
- Bertsolarien laguntzailea eta ezagutarazle gailena dugun Aita Zavalak **–betiko Aita Zavalak**– *bildu ditu* liburuxka polit honetan azken hamar urte honetako bertso-paperak. (LIB II: 134).

Oso gogoan hartzekoa da holakoetan ere, ia beti aditz perifrastikoa darabilela; bakarren batean trinkoa:

- Gisa horretako predikua, **eta luze xamarra aukeran**, *da* goian aipatu dugun Stanley Kramer'en film hau. (ZIN: 193).

Izan ere, itxuraz, aditz flexioa perpaus buruan edo multzo errematikoaren buruan jartzeko debekuak ez die aditz guztiei berdin eragiten. Osari jarraituz (1990, 154-155), aditz trinkoek zorrotzago bete dute debeku hori.

Beraz, corpusak erakusten digunez, Mitxelenak enuntziatu parentetiko mintzagaiaren eta irazkinaren edo eremu errematikoaren artean kokatzean, oso kontuan izan ohi du aditz jokatu soila esapide-buruan –eta kasu honetan multzo errematikoaren buruan– jartzeko debekua. (Osa 1990, 155-157, Oyharçabal 1985, 59).

Badakigu, halere, euskararen erabileraren historian debeku hori ez dela hain sendoa izan –edo agian, hain sendo ibili ez dena debeku horrekiko errespetua izan da–. Nola ahaztu, izan ere, B. Hidalgok (1997b, 16) autore klasikoak¹¹ aztertu ostean ateratako emaitza estatistikoak?

	Kopurua	%
Esaldi kopurua:	4.488	100%
Aditza hasieran:	640	14,3
Aditza tartean:	2.586	57,6
Aditza amaieran:	1.262	28,1

Datu eta azterketa horiek aski esanguratsuak badira ere, oraingo honetan Mitxelenaren jokabidea zaigu interesatzen. Mitxelenak, oro har, enuntziatu parentetiko mintzagaiaren eta irazkinaren edo eremu errematikoaren artean kokatuko du.

Nola lortuko du multzo errematikoaren buruan aditza ez jartzea? Justu aditzaren aurretik (aditzaren ezker alde hurbilean) fokua paratuko du, edo behintzat, Osari jarraituz (1990, 127 eta hur.), fokua-ren posizioa betetzeko eta perpausa markatu gabe betetzeko gaitasun berezkoena duten funtzioak jarriko ditu.

Osak (1990, 126 eta hur.) osagarri ezberdinen joerak aztertzean, baieztatzen du osagarrien artean badela fokutasunarekiko lehentasun bat, nolabaiteko graduazioa eman daitekeela:

¹¹ Hidalgok, besteak beste, Axular, Mogel, J.B. Agirre, Duvoisin eta J. Etxepare aztertu zituen. Egia da horiekin batera ahozko zenbait testigantza eta gaur eguneko zenbait idatzi ere izan zituela azterkizun.

Esateko moduan garelakoan nago, moduzko elementu adberbialak, elementu predikatiboak eta osagarri zuzenak direla gai, fokua-ren posizioan perpausa testugintzara makurtu gabe joateko. (Osa 1990, 130).

Subjektua + [E2] + fokua + aditza

1. Subjektua + [E2] + adberbio-osagarria + aditza

Adberbio-osagarriaren arabera, hiru azpisail bereizi ditugu, galdegaia edo fokua zerk osatzen duen gardenago ikusiko delakoan:

1.1. Subjektua + [E2] + moduzko adberbioa

- *Robert Aldrich'ek* – **Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten**– HAINBESTEAN¹² moldatzen ditu irudi moldakitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).
- *Argentinako zokoren baten harrapatu duten «Toro Moreno»-ren ibilerek* – **irabazle parregarri eta galtzaile zintzo**– BIZIRO kezkatzen gaituzte. (ZIN: 167).

1.2. Subjektua + [E2] + ezezko adberbioa

- *Euskararen hango egoera* – **bagenuen**¹³ **susmo**– EZ da pozgarria, baina nabari da egileari guri bezain penagarri zaiola. (LIB II: 156).
- *Gerok ere* – **zerbait jakiteko zaleturik geunden aspaldian**– EZ ditugu gogo gaiztoz ikusi. (ZIN: 160).

1.3. Subjektua + [E2] + baiezko adberbioa

- *Bestelako «paisajeak» nahiago dituenak* – **gehienon haragia argala da eta**–, BAdu ikusteko Sofia Lorenen dantza bat, A, gure Prai Bartolome bizi balitz! (ZIN: 191).
- *Aita Villasante ezagutzen duenak* – **eta nork ez du ezagutzen ize-
nez behintzat gure artean?**– BAdaki nola ekiten dion beti la-

¹² Denek aditzaren jiran pibotatzen dutenez, aditza ez dugu markatuko, baina identifikazioa argi-
giagoa izan dadin, letrakera lodiz paratuko dugu enuntziatu parentetiko, eta fokua, berriz, letra
larriz idatziko dugu; etzanez berriz jokoan dagoen beste osagarria.

¹³ Hemen ere garbi ikusten da Mitxelenak ez duela, oro har aditza multzo errematikoen buruan
jartzen. Ba- proklitikoaren eginkizuna baiezkotasuna markatzea edo aditza aktualizatzea izan liteke.

nari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

Azken adibide hori aski esanguratsua da. Badirudi «ba» hori gramatikak behartuta darabilela, flexio soila eremu errematikoaren buruan ezarri ezinak eragindakoa. Eta kasu horretan *ba*-k aktualizatu egingo luke aditz hori, per-pausaren baiezkotasuna indartu baino areago. Ontzat emango ote genuke ondorengo adibidea?

- *Aita Villasante ezagutzen duenak **–eta nork ez du ezagutzen izenez behintzat gure artean?**– *daki* nola ekiten dion beti lanari, sustraiz eta funtsez, bil eta azter ditzakeenak oro bildu eta aztertu ondoren, edozein sailetan. (LIB II: 60-61).

1.4. Subjektua + [E2] + adizlaguna

- *Ameriketako berriak* –«Sonata del Estío» alde batera utzirik– «TIRANO BANDERAS»-EN eman zizkigun. (LIB I: 52).
- *Nik* –eta barka bekit «izenorde higuigarri» honez hasten banaiz mintzatzen –PROFETA BATEN GISAN ikusten dut aurrenik gure Oteiza, gure artean nola eta nondik ez dakigula –aldiz bizardun, aldiz okotz soil– agertu zaigun antzinako igarleen ondorengo galdu baten antzera. (LIB II: 117).

2. Subjektua + (lokailua) + [E2] + osagarri predikatiboa + aditza

- Cesarek dioenez, *akitanoak* –gure senideak– TREBEAK omen ziren zula-eta bete-lanetan. (LIB II: 46).
- *Egilearen iritziak* –eta norenak ez?– OKERRAK izan daitezke hemen edo han. (LIB I: 130).

3. Subjektua + (lokailua) + [E2] + osagarri zuzena + aditza

- *Dan O’Herlihy’k* –lehen aldiz aditzen dut bere izena– PRESTUTASUN BEREZIA eman dio jantzi duen pertsonari. (ZIN: 153).
- *Besteak* –ez dakit guztiak ohartu diren– GAI EZAGUNA du, eta gertatua gainera: Tombstone’ko inguruan Earp eta Cranton-darrek tiroka egin zuten kontu-garbitzea. (ZIN: 190).

Baina subjektua topikalizatzeko ez ezik, maiz adberbio-osagarria bera ere topikalizatu edo hanpatzeko bitarteko gertatzen da enuntziatu parentetikoak. Holakoetan, mintzagai eginkizunean dagoen adberbioa perpausaren hasierara bidaltzen du eta justu ondoren enuntziatu parentetikoak kokatzen.

B) Adberbio-osagarria topikalizatuz

Goiko komunikazio-estrategia bera atzematen dugu: goian, enuntziatu parentetikoak mintzagai hanpatu subjektua bihurtzen zuen bezala, oraingoan adberbioa da mintzagai hanpatu gisa aurreratuko duena. Eta jarraian ez da ohikoa izango aditza multzo errematikokoaren buru-buruan agertzea.

Adberbio-osagarria + [E2] + fokua + aditza

Joera arrunta hori bada ere, adibide bakan batzuetan enuntziatu parentetikoak aditzaren justu aurreko posizioan paratzen du, multzo errematikokoaren buruan aditza jar ezin daitekeelako araua hautsiaz:

- Azkenik **–last, but not least–**, *aipa dezadan* lehen argitaraldian hainbeste bide irakurria dugun Orixeren hitzaurrea. (LIB I: 66).
- Hasieran aipatu dudana auzian buru-belarri sartu gabe ere, **eta ez daukat oraingoz horretarako gogorik ez astirik**, *bistan dago* Oskillasoaren bi xedeak eta helburuak, euskararen batasuna eta euskal eleberraren ona, haserre xamar dabilzala elkarrekin. (LIB II: 93-94).

Goiko adibidean agertzen den *bistan dago* hori formula kopulatibo edo predikatibo kontsokratutzat jotzen du Hídalgo (1997b), eta esaldi hasieran nahiz multzo errematikokoaren buruan kokatzen ditu:

(...) Eta ere, beste hainbat formula kopulatibo edo predikatibo konsakratuak, esaldi hasieran emanak eta aditz ondorera bultzatzen dutenak esaldiaren predikazio nagusia: *bistan da, argi dago, egia da, kontua zen, litekeena da, baliteke, garbi zegoen, gauza segurua da, damudut, zail(a)da, gaitz(a) da, gertatzen dena da, ongi da, hobe duzu,...* edo antz bateko beste milaka egitura. (Hídalgo 1997b, 106).

Aditza multzo errematikokoaren buruan joateko debekua badirudi aditz perifrastikoekin ez duela Mitxelenak hain zorrotz betetzen, edo behintzat,

goiko adibideak ez zaizkigula gramatikaren aldetik okerrak iruditzen. Holarakoak ere, ordea, eta kopuruari begiratu besterik ez dago (%1.2), ezin esan ohikoak direnik.

Gainerakoetan, ordea, enuntziatu parentetikoaren ondoren multzo errematikoa fokuarekin hasiko da:

1. Adberbio-osagarria + [E2] + adberbio-osagarria + aditza

1.1. Adberbio-osagarria + [E2] + (moduzko) adberbioa + aditza

- *Espaini aldean* behintzat –**bestetan ez dakit**– BEKAITZEZ begiratzen diote gai hauetan hasten denari, elizgizona ez baldin bada, eta ez dut, ahal baldin badut, neure burua auzitegitan ikusteko gogorik. (LIB I: 96).
- *Azkenean, eta aski dugu honekin*, AHO BATEZ aitortzen dute hamabiek gaizkile gogortua zirudiena ez dela halabeharraren jostailu errugabea baizik izan. (ZIN: 180).

1.2. Adberbio-osagarria + [E2] + [Ezezko adberbioa] + aditza

- *Hemen –eta liburuaren egileari, Max Catto’ri, zor zaio noski eraberritze pozgarri hori*– EZ dira hasierako itxurak azken-aldeko egia bihurtzen. (ZIN: 169).
- *Hizkuntzaren aldetik, eta gure sailean sartzen naiz horrenbestez*, EZ da gogo gaiztoz bezala begiratzekoa, astiro eta sakon aztertzekoa baizik. (LIB II: 89).

1.3. Adberbio-osagarria + [E2] + ba + aditza

- *Gero, eta egoki dator hori ere*, BAditu bi aldiz, 12garren eta 25garren ikasgaien ondotik, gramatika laburpenak ere. (LIB II: 153).
- Horrez gainera, *nolabaiteko gustoak dituztenentzat –eta ni ere horietakoa nauzue*–, BAdaude hemen zenbait «pasadizo» polit, «Zeamako izkean» moldatuak. (LIB II: 97).

2. Adberbio-osagarria + [E2] + osagarri zuzena + aditza

- *Baina Fortebraccio della Rovere izen-deiturez jabetu den orduko, eta ez da harritzeko horien pisu-astuna nabaritzea*, ZERBAIT aldentzen da gure arlotearen barruan. (ZIN: 195).

- «Lehenago, *gure Euskalerrian –dio egileak–*, FEDEA gorde izan da...» (LIB II: 88).

3. Adberbio-osagarria + [E2] + zehar-osagarria + aditza

- *Sari aski, eta eskertzekoa da hori*, PLATONI BERARI utzi dio hitza egileak, eta horretan hain merezi onez entzutetsua den idazlearen prosa euskal idazleak dasta dezan bitartekorik gabe. (LIB II: 77).

C) Osagarri zuzena topikalizatuz

Osagarri zuzena edo ISNOR hanpatuko du enuntziatu parentetikoari esker:

- Hizkera, *bestek ere esan du eta*, GOGOR XAMARRA *agertzen du, han hemenka*. (LIB I: 142).
- *Baina ordukoen barrunbeak nolakoak ziren –beren garaikoak, gaurkoak eta gerokoak bezalakoxeak, alegia–*, EDERKI *zekien, hori bai, eta baita besteri adierazten ere*. (ZIN: 125).

D) Zehar osagarria topikalizatuz

Oraingo honetan, zehar osagarria edo IS NORI da enuntziatu parentetikoak topikalizatuko duena, eta oraingoan ere multzo errematikoaren buruan ez du aditza paratuko fokua baizik:

- Ba ote dakigu, horratik, zer-nolakoa den hobetu beharrean ari garen hizkera? *Neri* behintzat¹⁴ *–ikasiagoengatik ez naiz ari–* DEUS ERE EZ DAKIDALA iruditzen zait Ibar-en itzulpen hau irakurri ondoren. (LIB I: 103).
- *Guri*, ordea, *hitz ederretan ez ezik hitz horiek adierazten dituzten gogoeta ederretan ere sinesten ez dugunez gero*, PARRREGARRI *agertzen zaizkigu, haurtzaroko jostailuei ederretsirik bizi diren gizon-emakume hazien antzera*. (ZIN: 158).

¹⁴ Sail honetako adibideetan ikus daiteke Mitxelena ezkerreko osagaiaren topikalizazioa ez duela enuntziatu parentetikoarekin soilik erdiesten, baita lokailuarekin ere; izan ere, lokailu batzuek badute topikalizatze eginkizuna. (Osa 1990).

Honenbestez, Mitxelenaren prosan –eta azterkizun ditugun adibideak dira horren lekuko– joera nabarmen bat atzematen da: aditza enuntziatu parentetikoaren ondoren kokatzen da, baina ez justu segidan; multzo errematikoaren bigarren elementu gisa (fokuaren ondoren) baizik.

Subjektuaren eta predikatuaren artean enuntziatu parentetikoa tartekatzeko Mitxelenak zuen joera horretaz Esnal eta Zubimendi ere ohartu ziren:

Sarritan erabiltzen zuen Mitxelenak baliabide hau. Maiz baliatzen zen koma arteko zatiz, sujetuaren eta predikatuaren arteko pausaldia egiteko (bakanago marra artekoz eta parentesi artekoz). Maiz eta baliabide-mota ugari erabiliz: sujetua errepikatzea, deikia, iritzi-tartekatzea, hitz indargarriak... (Zubimendi & Esnal 1993, 223).

Gure ustez ere –eta horixe da corpuseko datuek erakusten digutena–, subjektuaren eta predikatuaren arteko kokagune hori maiz erabiltzen du Mitxelenak enuntziatu parentetikoa kokatzeko. Baina kategoria gramatikalek baino areago, mintzagai-galdegai jokoaren arauak gobernatzen edo baldintzatzen dutela dirudi enuntziatu parentetikoaren kokagune hori.

Mintzagaia, goiko adibide horietan guztietan, beti aurretik doala dirudi eta enuntziatu parentetikoek hanpatu edo markatu egiten dute. Hortik aurrera, aditzaren aurreko posizioa dela dirudi guztiz behartua den bakarra.

Oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean, enuntziatu parentetikoaren kokalekua, ordea, ez da soilik mintzagaiaren eta irazkinaren edo multzo errematikoaren arteko tarte horretara mugatzen, nahiz eta, datuek erakusten digutenez, adibiderik gehienak mota horretakoak izan (%65.70). Jarraian adieraziko ditugun adibideen kokaguneez ondorengo komunikazio-hurrenkerari erantzuten diote:

Mintzagaiaz gain, «Fokua eta aditza» bikoteaz osatutako multzo errematikoa enuntziatu parentetikoaren aurretik kokatzen du: bien artean batzuetan ez dago tarterik eta beste batzuetan egon daitezkeen sintagmek beste mintzagai batzuen itxura hartzen dute.

Mintzagaia + fokua + aditza + (perpaus abar) + [E2] + (perpaus abar) + esaldi abar

3.1.2. «Fokua+aditza» bikotearen ondoren

Enuntziatu parentetikoa fokoaren eta aditzaren ondoren doanean ere honako egoeren aurrean egon gintezke:

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Adibide kopurua	Perpau lokabeen % zenbat	Corpuseko adibide guztien %
2. «Fokua+aditza» bikotearen ondoren			
Fokua+aditza+subjektua+[E2]/fokua+aditza+[E2]+subjektua	16	%5.12	%2.777
Fokua+aditza+Osagarri zuzena+[E2]/Fokua+aditza+[E2]+osagarri zuzena	11	%3.52	%1.9
Fokua+aditza+[E2]+osagarri predikati-boa / fokua+aditza+osagarri predikati-boa+[E2]+	10	%3.2	%1.73
Fokua+aditza+adberbio-osagarria+[E2]/fokua+aditza+[E2]+adberbio-osagarria	16	%5.12	%2.77
Fokua+aditza+lokailua+[E2]+beste osagarriren bat	4	%1.28	%0.694
Fokua+aditza+[E2]	1	%0.32	%0.17
Guztira	58	%18.58	%10.06

Goiko datuek erakusten digutenez, E1 perpau lokabea denean, %18.58 adibidek fokoaren eta aditzaren ondorengo kokatze-puntua dute. Osa ditzagun corpuseko adibideren batzuk aldatuz.

1. Fokua+aditza+(lokailua)+subjektua+[E2]+/Fokua+aditza+[E2]+subjektua

- HEMEN ditugu **–laster, arin, bildurgarri– munduari hainbeste zihoakion ordu larri bateko egiazko borrokalariak**, «Achilles», «Ajax», «Exeter» eta itsaso hondargabeak ordu t'erdirako amets-bizitza eman dion «Admiral Graf Spee»-ren errainu iluna. (ZIN: 177).

- ZENBAIT BERRIREKIN agertu zaigu *Oskillaso* –**honela deitu beharko dugu egilea, bere izena salatzea debekatua daukagunez gero**– «Mutiko kaletarrak Bizkaian» izen ondokoa daraman liburu azalez eta mamiz ikusgarri eta irakurgarri honetan. (LIB II: 92).
- EZ du egileak, **oker ez banago**, ezer erabakitzen Bidasoaz alde bateko eta besteko euskaldunok aspaldidanik darabilgun auzian. (LIB II:57).

2. Fokua + aditza + osagarri zuzena + [E2] +

- «ZANPATUTA zeukan *Leturia*» –**irakurtzen dugu azken liburuaren hitzaurrean**– «aukeratubear»aren larritasunak. (LIB I: 137).
- «BERAK eraman du bertsoaritzza» –**dio aita Iturriak**– «perioidiku eta radioetara» (LIB I: 144).

3. (Subjektua) + fokua + aditza + [E2] + osagarri predikatiboa / Fokua + aditza + osagarri predikatiboa + [E2] +

- Gregorio Arrue EZ *da*, **jakina dago**, liburu honen egilea. Itzultzailea izan zen beti haren lana: erdaratik euskarara eta euskaratik erdarara. (LIB II: 43).
- Horrexek, gauza ezerez horrek, gidatzen du idazle eta hitzun trebea hitzak hautatzean eta HORIXE *da* –**saio hizkera batean, baina ez benetako hizkuntzan**– *antolatzailearen erabaki hutsez bazter eta deusezta daitekeena*. (LIB I: 117).
- EZ zen berez hitzun trebe horietakoa –**Jainkoaren dohaia izaten da hori**–, jakintza gizona zen izatez, ezer bazen. (LIB I: 120).

4. Fokua + aditza + [E2] + adberbio-osagarria/fokua + aditza + adberbio-osagarria + [E2] + (beste osagairen bat)

- Zenbait nahasteren beharrean gara noski euskal literaturan, eta BIDE HONETATIK gabiltza –**batera edo bestera**– *aspaldi honetan*. (LIB II: 94).
- HAMAIKA NOBELA *bidali dituzte* sariketara –**hamaika esan nahi dut, hamar eta bat gehiago**–, itzuliak eta asmatuak. (LIB I: 49).

Badira, azkenik, corpusean adibide gutxi batzuk, joeratzat har ez badaitheke ere, aipatu behintzat aipatuko ditugunak. Adibide hauetan *fokua* + *aditza* bikotea bera hautsiko du enuntziatu parentetikoak.

3.1.3. *Fokuaren eta aditzaren artean*

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Adibide kopurua	Perpaua lokabeen % zenbat	Corpuseko adibide guztien %zenbat
Fokuaren eta aditzaren artean	15	%4.8	% 2.6

Hona hemen adibideak:

- Zintzotu zen gerratean eta PAKEAN –**eta oparo, ez bide baitzitu**en itzuli ondasun ostuak– bizi da, beste «katu» bat katua-renak egiten hasi arte. (ZIN: 187).
- GOGOZ –**eta batzuetan parre-algaraz**– irakurtzen dira ipui guztiak, buru batetik bestera. (LIB I: 91).

Berez ez ote litzateke «pakean bizi», nahiz «gogoz irakurri» inolako etenik gabe irakurri behar? Hau da, ez ote du galdegaiaren eta aditzaren bloke hori hausten?

Ikus beste honako adibide hau ere:

- Gaia ez zaio egileari ahitu oraindik ez agortu. Ea, bada, NOIZ –**berak nahiz bestek**–*eskeintzen digun* beste horrenbeste Bizkai-ko argizagiolaz, Nafarroakoaz edo beste edozein Euskalerritakoaz. (LIB II: 145).

Berez ez ote litzateke «noiz eskeintzen digun» inolako etenik gabe¹⁵ irakurri behar? Hau da, ez ote du galdegaiaren eta aditzaren bloke hori hausten? Arazo honen berri eman zigun Juan Garziak ere (1997).

¹⁵ Hidalgo (1997b) esango digu euskal aditzaren joera galdegilearen segidan paratzea dela: «Euskal aditzaren ohiko joera beti ondore justutik erantsita agertzeko galdegileari» (1997b: 105).

Horren [galdegai den sintagma aditzaren aurrean joateko eta harekin batera entonazio jarraitu batez irakurtzeko posibilitatea izateko] kasu berezi batek ematen dizkigu, hain zuzen, buru-hausterik handienak: zer egin galdegai den sintagmaren ondoren haren aposizio bat badator? (Garzia 1997, 154).

Ez du, ordea, aposizioa soilik gogoan; beheraxeago esango digu, aposizioez gain «gure parentesien, eta beste zenbait prozedura grafikoren» (Garzia 1997, 156), arazoa ere badela.

– Pierre Lafitte Kalonge eta EUSKALTZAINAREN ESKUTIK
–**berori baitugu aitzin solasaren egilea**– *agertzen zaigu* oraingoan Zaitegi jauna: hegazti harraparia hormatxori apalaren eskutik, norbaitek esango lukeenez. (LIB II: 75).

«Norbaiten eskutik» postposizio-sintagma horrek segidan aditza du eskakizun, baina enuntziatu parentetikoa tartekatzen du.

Adibide horiek erakusten digute fokuak justu aditzaren aurreko posizioa behar duelako debeku hori (nahiz eta oso eztabaidatua izan) ez duela errespetatzen; izan ere, enuntziatu parentetikoak fokuak eta aditzak osatzen duen bloke hori hautsi egingo du.

Azkenik, sintagmak hautsiaz tartekatzen den enuntziatu parentetikoa daukagu. Izenlagunaren eta izenaren arteko lotura hertsia ez ezik postposizio sintagma ere hausten duelako ekarriko ditugu paperera; urriak dira bere corpusean, baina urriak bezain bitxiak gertatzen zaizkigulako dakartzagu hona. Joera orokortzat ezin jo daitezke, baina aipagarriak bederen badira.

3.1.4. *Sintagmaren egitura sintaktikoa hautsiaz*

Sintagmaren egitura hausten duten adibideak dira ziurrenik, gramatikaren ikuspegitik begiratuta behintzat, gogorren edo berezien gertatzen zaizkigunak eta horrexegatik beragatik merezi dute aipatzea.

E2-k E1en egitura sintaktikoa hautsi egingo du	Adibide kopurua	Perpau lokabeen % zenbat	Corpus osoaren %zenbat
Sintagmaren egitura hautsiaz			
1. Izenlagunaren eta izenaren egitura hautsiaz	20	%6.41	%3.47
Izlag+ [E2+marka]+izena: E2k izenlagunaren marka darama	20		
Izlag+ [E2-marka]+izena: E2k ez darama izenlagunaren marka	0	0	
2. Bestelakoak	14	%4.48	%2.43
2.1. Izena+izenondo+ [E2]+erakuslea	1	%0.32	%0.17
2.2. Izena+ [E2]+izond	4	%1.28	%0.69
2.3. Postposizio-sintagmak hautsiaz	2	%0.64	%0.34
2.4. Aditzaren egitura hautsiz	7	%2.24	%1.21
Guztira	34	%10.86	%5.9

Datuek erakusten digutenez, holako hausturak corpuseko adibide guztien %5.9 osatzen dute eta horietatik %3.47 izenlagunaren eta izenaren artekoak dira.

Izlag+ [E2+marka]+izena

- Egonaldi hori, laburxkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du «llaneroen»–**hango zabaldietako gizon-emakumeen**– *hizkera* ikasi eta barra-barra egiteko. (LIB I: 51).
- Maiz erabili izan dituen Donostia zaharreko –**atzoko eta here-negungo**– oroitzpenak darabiltza, berriz, herri-min atseginez igortzirikako oroitzapen gozoak. (LIB II: 134).

Goiko adibide horiek, bada, ez dira erabateko haustura, edo behintzat, E2k morfologiako marka bera izateak haustura hori leundu egiten du.

Izena + izond + [E2] + erakuslea

- Cecil B de Milleren tankera ezagunean moldatu dute *show aberrats, ugari eta luze (hiru orduz gorako) hau*. (ZIN: 181).

Izena + [E2] + izond

- Eta aldamenekoaren ohiuak belarran ditugula, nola amets egin, «Cinemascope» –«**mundua sortu zenez gero ikusi den gauzarik miragarriena**»– berriarekin ere? (ZIN: 129).
- Horretaz mintzatu zitzaigun «*The Champion*» («**El ídolo de barro**»¹⁶) *gogor* hartan eta horretaz mintzatzen zaigu orain. (ZIN: 167).

Postposizio-sintagma hautsiaz

- Ez dio axolabekeriaren pake gozoan bizi denari pake gozorik utzi nahi eta pakearen –**besteak beste**– *jabe* direnek ez diote berari ere barkatuko. (LIB II: 117).
- Nabari zaio ez dela gaia zenbaiten (**askoren edo gutxi batzuen?**) *gogoko izango* eta hala ere, edo horrexegatik beragatik, batere beldur eta kupidarik gabe azaldu nahi luke. (ZIN: 145).

Berez postposizioaren eta bere aurrekariaren arteko lotura ezin da eten eta horregatik gertatzen zaizkigu goiko kokaguneak bitxi edo harrigarri. Holakoak, ordea, adibide guztien % 0.34 osatzen dute.

Orain arteko adibide horiek guztiek E1 oinarritzko enuntziatua formaz perpaus nagusi edo lokabe denean E2k hautatzen zuen integrazio-guneari

¹⁶ Kontu egin dezagun, halere, adibide hori film baten itzulpena dela eta horrelakoen kokapena are eta zurrunagoa dela; hau da, jatorrizko izenaren ondoz ondo paratzera behartuta dagoela. Horren frogatzat ikusi besterik ez dago *izena + [E2 itzulpena] + delakoak/izenekoak/deritzanak* bezalako egiturak:

- Hoen artean leku berezia merezi du eskuarki THE PRODIGAL («**El hijo pródigo**») *delakoak*, onena izatea bezain berezia eta nabarmena baita txarrena izatea. (ZIN:189).
- Jendeak ez bide dio egin besteri aspaldian Billy Wilder'en The Witness for the prosecution («**Testigo de cargo**») *deritzanari* egin harrera. (ZIN:189).
- Gehiago nahi zuen Ken Annakin'en ACROSS THE BRIDGE («**Al otro lado del puente**») *izenekoak*. (ZIN:191).

egiten bazion erreferentzia, ondorengoetan E1 perpaus konposatua izanik gertatzen dena aztertuko dugu. Bi aukera izango ditugu: E1 maila bereko bi perpaus osatzea eta E1 perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko uz-tarketa izatea.

3.2. Maila bereko bi perpausen artean

E2 maila bereko bi perpaus koordinaturen artean kokatzen da	Zenbat adibide	Perpaus konposatu- tuen % zenbat	Corpus osoaren % Zenbat
Perpaus koordinatu kopulatiboen artean: E1 + [E2] + eta + E1	26	%12.03	%4.51
Perpaus koordinatu kopulatiboen artean: E1 + eta + [E2] + E1	2	%0.92	%0.34
Perpaus koordinatu aurkaritzakoen artean: E1 + [E2] + baina + E1	18	%8.33	%3.12
Perpaus koordinatu aurkaritzakoen artean: E1 + baina + [E2] + E1	1	%0.46	%0.17
Guztira	47	%21.75	%8.15

Pentsa daiteke koordinaziozko juntagailua enuntziatu parentetikoaren aurretik nahiz atzetik joan daitekeela. Bi aukera horiek zilegi izanik ere, azterkizun izan dugun corpusean, enuntziatu parentetikoaren ondoren agertuko da (ia) beti juntagailua (hiru adibidetan izan ezik); nolabait oinarrizko enuntziatuari berriz eusteko eginkizuna beteko balu bezala. «Berrartze-lan» horretan, jarraian datozen adibideek erakutsiko digutenez, *eta* eta *baina* juntagailu-lokailuak dira maizenik erabiltzen dituenak.

[E1] + [E2] + eta/baina[E3] edota E1 + [E2] + eta/baina + E1

- Lagunek parre egiten diote **–neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietako**– *eta* bere ama ere, «Noiz ezkondu behar duk»-ka beti ari zitzaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).

- Gai aukeraz zer bait esan daiteke (**arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegixko dirudi**), *baina* batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoreegiak ere. (LIB I: 109).
- Ez da, labur, Sinclair Lewis'en «Main Street» **–eztena ere falta zaio–**, *baina* badu guretzat gisa horretako zer bait. (ZIN: 164).
- Gertakariak kontatzen mutila izan da beti (**ez dago gure Patroi Aundia-ri begiratu besterik**) *eta* bizi eta argiro kontatzen duena euskara erraz, laster, malkarrik gabeko batean esaten du. (LIB I: 123).

Horrelako adibideak corpusean ugari dira eta horietan enuntziatu parentetikoek oinarriko enuntziatuan (E1 eta E3 enuntziatuek osatzen dute) formalki maila bereko bi perpausen artean dute kokagunea. Bada, ordea, maila bereko bi perpausen artean izan ordez, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan kokatzen den enuntziatu parentetikorik.

3.3. Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan

E2 enuntziatua E1eko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan	Zenbat adibide	Perpaus konposatuaren % zenbat	Corpus osoaren %zenbat
1. Mendeko perpaus osagarrietan	32	%14.81	%5.55
Perpaus nagusia + [E2] + mendeko perpaus osagarria			
2. Baldintza perpausetan bi aukera ditugu	27	%12.5	%4.68
Ondorioa + [E2] + baldintza	11		
Baldintza + [E2] + ondorioa	16		
3. Perpaus kausaletan	27	%12.5	%4.68
Perpaus nagusia + [E2] + mendeko perpaus kausala	16		
Perpaus kausala + [E2] + perpaus nagusia	11		
4. Moduzko perpausetan	6	%2.77	%1.04
Perpaus nagusia + [E2] + moduzko perpausa	3		
Moduzko perpausa + [E2] + perpaus nagusia	3		

E2 enuntziatua E1eko perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga	Zenbat adibide	Perpaus konposatuaren % zenbat	Corpus osoaren %zenbat
5. Kontzesio perpausetan	5	%2.31	%0.86
Kontzesiozkoa + [E2] + perpaus nagusia	3		
Perpaus nagusia + [E2] + kontzesio perpausa	2		
6. Helburuzko perpausetan	7	%3.2	%1.21
Perpaus nagusia + [E2] helburuzkoa	5		
Mendeko perpaus helburuzkoa + [E2] + perpaus nagusia	2		
7. Denborazko perpausetan	3	%1.38	%0.52
Denborazko mendeko perpausa + [E2] perpaus nagusia	2		
Perpaus nagusia + [e2] denborazko mendeko perpausa	1		
Guztira¹⁷	107	%49.53	%18.57

Datuek erakusten digutenez, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga hori kokagune aproposa gertatzen zaio; E1 perpaus konposatuak osatzen dutenean, %49.53 adibidetan gune horretan bertan tartekatzen ditu enuntziatu parentetikoak.

1. Perpaus nagusia + [E2] + mendeko perpaus osagarria

- Poliki-poliki hasten da Maisu Juan ikusten **–horrelako zerbait gertatu bide zitzaion Sokratesekin jarduten zutenei–** erdi us-tela zela zuen jakin-ustea. (LIB I: 72).
- Egia da, **aitor dezagun lehenbaitlehen**, ez dugula Atila hau gure haurtzaroko eskola-liburuetan ikusi genuen Jaunaren Zigor ika-ragarri hura. (ZIN: 142).

¹⁷ Letrakera lodiz agertzen diren sailen baturaz mintzo gara, nahiz eta sail bakoitza xeheago adierazita egon.

2. Baldintza perpausetan

2.1. Baldintza + [E2] + ondorioa

- Diren baino hamar halako arandegi gehiago irekiko *balira* –**ez da hau nik asmatua**–, ez *lirateke* hordiak hamar aldiz gehituko; etxean ditudan halako bi ohe baneuzka, ez nuke horregatik lo gehiago egingo. (ZIN: 152).

2.2. Ondorioa + [E2] + baldintza

- Ez duzu ireki besterik –**hasieratik, erditik nahiz azkenetik**– diodanaren egiaz zerorrek jabetu nahi *baduzu*. (LIB II: 98).

3. Perpaus kausaletan

3.1. Perpaus kausala + [E2] + perpaus nagusia

- Halaz guztiz, beste aldekoak eta gu hizkuntza berebete mintzatzaren garez *gero* –**zenbait huskeria gorabehera**–, ez digu guri ere on baizik egingo. (LIB I: 104).
- Gaia ahula du: ustekabeen sortua *izanik* –**ez guretzat bakarrik, baita egilearentzat ere**–, ustegabeko sortze horren ezaugarriak agerian daramatza. (LIB I: 61).

3.2. Perpaus nagusia + [E2] + perpaus kausala

- Liburu bakana da gure artean L.M. Mujikaren hau, euskaraz eta erdaraz egina –**erdal itzulpena aldamenen darama euskal testuak**–, bai darabilen *gaiagatik*, bai gaia darabilen *eragatik*. (LIB II: 140).
- Ez du artean zinamak horrelakorik egin, **ezta egingo ere berehalakoan**, ez *baitu* inork, askoren eta batez ere diruaren mendean da goen mundu honetan, horretarako erarik erraz izango. (ZIN: 137).

4. Kontzesio perpausetan

4.1. Perpaus nagusi + [E2] + kontzesio perpausa

- Horregatik edo, antzektokirako utzi ditu pailasokeriak –**txarlotkeriak**–, berebizikoak *badira ere*. (ZIN: 136).

4.2. Kontzesio perpausa+ [E2]+perpaus nagusia

- Eta atertu gabe aditzera ematen diguten irakaspen honetaz jabetu ez bagina ere **–ez digu guziori argitasun berbera eman Jainkoak:zinemagile izango ginатеke bestela zinema-ikusle izan beharrean–**, astiro azaltzen digute azkenean «De rerum natura»-tik hartua dirudien hitzalditxo baten bidez. (ZIN: 147).

5. Perpaus nagusia+ [E2]+moduzko perpausa

- Bada ordu gure egitekoari lot gakizkion (**euskara irakastea bada, ahalik ongien eta errazen irakasteari**), hodeietatik apur batez jexiaz. (LIB II: 49).

6. Perpaus nagusia+ [E2]+helburuzko mendeko perpausa

- Inorengana jo beharko du batzuetan, **ea iruten dion hari berri-rik**, ale bakan horiek elkarrekin nolazpait ere lotzeko. (ZIN: 154).

Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan ez ezik, mendeko perpausaren bertan ere kokatu ohi ditu enuntziatu parentetikoak. Kokagune honetan interesgarria litzateke jakitea perpaus nagusiaren egitura sintaktikoa hausterakoan hautatzen zuen posizio edo leku bera hautatzen ote duen mendeko perpausaren ere.

3.4. Mendeko perpausaren barnean

E2 enuntziatua E1eko mendeko perpausaren barnean	Adibide kopurua	Perpaus konposatuena %	Corpuseko adibide guztien %
Subjektua + [E2] + aditza/ subjektua + [E2] + fokua + aditza	18	%8.33	%3.12
Subjektua + [E2] + fokua + aditza	24	%11.11	%4.16
Osagarri zuzena + [E2] + aditza	5	%2.31	%0.86
Adberbioosagarria + [E2] + aditza	10	%4.62	%1.73
Subjektua + osagarri zuzena + [E2] + aditza	2	%0.92	%0.34
Lokailua + [E2] + osagarri zuzena + aditza	2	%0.92	%0.34
Izenlaguna + [E2] + izena	1	%0.46	%0.17
Guztira	62	%28.7	%10.76

Goiko datuek erakusten dute mendeko perpausaren barnean tartekatzen dituenean ia beti subjektuaren eta fokuaeren arteko lekua hautatzen duela eta gutxiagotan subjektuaren eta aditzaren artekoa.

Subjektua + [E2] + aditza

- *Ulysseren ibilerek* –**adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean**– erakusten digutena hauxe da: jakinko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).
- Ataka-gaitz honetan, behinola *Eugenio d'Ors'ek* (**artean «xenius» zenak**) egin zuena egin beharko dut: neurri doi eta zehatzetara jo, usteak eta iritziak bertan behera utzirik. (LIB II: 115).

Subjektua + [E2] + fokua + aditza

- Aski izango omen da, diotenez, *norbaitek* –**ez dakigu nork**– BOTOI KAXKAR BAT estutzea edo urrutizkin bat eskuetan hartzea. (ZIN: 194).
- *Clark Gable'ren kaskoa* –**ai, gurearen gisara!**– GERO ETA URDINAGO dela ere esango nizueke, baina hori badakizue honez gero, nik bezain ongi. (ZIN: 141).

Osagarri zuzena + [E2] + aditza

- Ezin uka herri kantak –**zaharrenak eta berriagoak**– aukeratzeko begi eta aho gozoa izan duenik. (LIB I: 46).

Honenbestez, mendeko perpausaren barnean ere, oro har, perpaus nagusiaren barnean bereizten genituen kokaguneak dira nagusi.

Hirugarren atal honetan saiatu gara ikusarazten Mitxelenaren euskal prosan enuntziatu parentetikoak tartekatzeko orduan badela erregularitatearik eta modu sistematikoan errepikatzen diren gunehoriek joera batzuen adierazle direla.

4. Enuntziatu parentetikoan integrazio-gunea komunikazio estrategien zerbitzura

Goiko azpiatalean, E2 enuntziatu parentetikoak E1 oinarrizko enuntziatuan zein gune hartzen duen aztertu dugu, bereziki funtzio-egitura kontuan izanik; hau da, E2 enuntziatua zein funtzioaren aurretik, tartean edo ondoren kokatzen duen Mitxelenak aztertu dugu. Horrek bide emango digu oinarrizko enuntziatuan zein komunikazio-egitura nagusitzen den aztertzeko, osagaien hurrenkera komunikazio¹⁸ zereginen edo komunikazio-legeek ordenatuko baitute.

Gure ustez, oinarrizko enuntziatuko osagaien hurrenkera (eta enuntziatu parentetikoan ere bertan tartekatzen da), esatariak komunikatu edo aditzera eman nahi duena ahalik eta argiena eta eragingarriena gertatzeko moduan antolatu du Mitxelenak. Hori argudiatzen eta azaltzen saiatuko gara atal honetan eta horretarako, tema-errema (Osa 1990) edo mintzagaia-irazkina (Euskaltzaindia 1987) segidak hartuko ditugu kontuan; informazio zaharra edo ezaguna dena informazio berriarekin uztartzeko egiten duen osagaien antolamendua edo mintzagai-egitura, hain zuzen. Izan ere, enuntziatu parentetikoan kokagunea informazio ezagunaren (mintzagaia) eta berriaren (irazkina) kokapen estrategikoaren baldintzapean dagoelakoan gaude.

Azalpen honetarako hirugarren atalean bereizi ditugun kokagune-ardatzak izango ditugu oinarri. E1 oinarrizko enuntziatuan hiru gune nagusi egon daudela aipatu arren (hasierakoa¹⁹, amaierakoa²⁰ eta tartekoa), guk, bereziki, E1eko egitura sintaktikoa hautsiz tartekatzen den gunea izan dugu azterkizun. Tarteko posizio honetan, ordea, lau sail bereizi ditugu, E1 oinarrizko enuntziatuaren formazko egiturak baldintzatzen dituen lau sail:

– Oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean

¹⁸ Osak (1990) euskararen hitz ordena komunikazio zereginaren araberakoa zela frogatu zuen.

¹⁹ Hasiera-hasierako gunean lau adibide soilik aurkitu ditugu, eta laurak erritozko formula eginei dagozkie. Beraz, ezin esan Mitxelenaren luman, E1 oinarrizko enuntziatuaren hasierako posizio hori enuntziatu parentetikoak kokatzeko gune aproposa denik.

²⁰ E1 oinarrizko enuntziatuaren bukaera-bukaeran adibide gehiago aurkitu ditugu: 44, guztira. Maiz, gainera, esatariak, aldeztu aurretik esandakoa zalantzan jarriz egindako galdera, iruzkin nahiz kritikek osatzen dute.

- Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpaus koordinatuek osatzen dutenean
- Oinarrizko enuntziatua perpaus nagusiak eta mendekoak osatzen dutenean
- Mendeko perpausaren barnean

Ikus dezagun, bada, hautatutako gune horiek zergatik hautatu ote dituen edo ba ote duten eraginik komunikazioaren ikuspegitik. Hau da, testuaren komunikagarritasunari eragiten ote dioten hautatutako kokaguneeak.


1) Oinarrizko enuntziatua perpaus lokabea denean

Sail honetan, bereziki, bi komunikazio-egitura gailendu zaizkigu eta horiek, ikusiko dugunez, komunikazio-estrategia jakin batzuen zerbitzura egongo dira.

Gehien erabiltzen duen komunikazio egitura ondorengo hau da:

Mintzagai hanpatua + [E2] + fokua + aditza + (perpaus abar) + (esaldi abar)

A) Egitura komunikatiboa 1



E1 perpaus nagusi edo lokabeak osatzen duenean, adibideen %65.70ean, enuntziatu parentetikoak mintzagaia hanpatu edo topikalizatu egingo du, berak dakarren sintaxi- eta tonu-hausturaz baliatuz eta mintzagai markatuaren eta galdegaiaren edo fokuaeren artean kokatuko da. Horrela, mintzagai edo topiko markatutik irazkinerako jauzia egiteko gunean kokatuko du enuntziatu parentetikoak.

Mintzagai hanpatua + [E2] + irazkina, predikazioa edo multzo errematikoak (fokua + aditza)

Beraz, E2 enuntziatu parentetikoak bere ezker aldekoa (dela subjektua, dela adberbio-osagarria, dela osagarri zuzena, dela zehar osagarria) topikalizatzeko balio du, eta hori, bereziki, egitura honek dakarren entonazio-etenak markatuko du:

- *Robert Aldrich'ek –Venezian bigarren Zilarrezko Lehoia eraman du aurten–* HAINBESTEAN ditu irudi moldakaitzak, ofiziale ikasiari dagokionez. (ZIN: 142-143).
- *Argentinako zokoren baten harrapatu duten «Toro Moreno»-ren ibilerek –irabazle parregarri eta galtzaile zintzo–* BIZIRO kezkatzen gaituzte. (ZIN: 167).

Behin topikalizatuz gero, irazkina edo multzo errematikoaren buruan aditza jartzeko debekua (ia) gehienetan errespetatzen du (% 4.4en izan ezik), fokuaeren posizioa²¹ betetzeko (eta perpausa markatu gabe betetzeko) gaitasun berezkoena duten gramatika-kategoriak aditzaren aurretik kokatuz:

²¹ Guk Euskaltzaindiari (1987), Osari (1990) eta Garziari (1997) jarraituz, aditzaren ezker alde hurbila joko dugu fokuaeren posizio naturalizat, nahiz eta jakin, zenbaitetan, eta bereziki euskara mintzatuan entonazioak aipatu ordena hau hauts dezakeela, galdegaia aditzaren eskuinean kokatuz. Galdegaiaren izaera ere kontuan hartu behar dela esaten du Euskaltzaindiak «adibidez, esaldi menperatu luze eta korapilatsu batek osatzen duenean, aditzaren eskuinaldean emateko joera dugu». Alberdi eta Sarasolaren (2001) liburuan ere, ondoko izenburua darama atal batek: «Perpaus osagarrien salbuespena edo lizentzia: galdegaia predikatu nagusiaren ondoren». Hildagoren tesia (1997) eta bere lanak (1996a, b, c, d; 1997, 2002) ikusi besterik ez dago galdegaiaren kokapen hori maiz hauts daitekeela jakiteko, nahiz kokapen honek dakartzan zalantza jabetzeko.

osagarri predikatiboa, adberbio-osagarria, osagarri zuzena...Bat dator, bada, Osak (1990, 126 eta hur.) osagarrien joerak azertzean egiten duen baieztapenarekin: osagarrien artean badela fokutasunarekiko lehentasun bat, nolabaiteko graduazioa eman daitekeela.

Multzo errematikoaaren burua aditzarekin hasten duenean ere, ez du aditz trinkoarekin hasiko²², perifrastikoarekin baizik. Badirudi, bada, debeku horrek trinkoei gehiago eragiten diela perifrastikoei baino. Holakoetan, badirudi enuntziatu parentetikoaren fokua eta aditzaren artean kokatzen duela, baina, esan bezala, ez da ohikoa.

Honenbestez, E1 oinarriko enuntziatuaren hasieran, mintzagaia jarriko du, bertan predikatuko dena espazioan eta denboran kokatzen duten elementuak eskaini ohi dira; hau da, adieraziko dudana *noiz*, *non*, *nor* egiten duen. Horren atzetik, edo hori hanpatuz, enuntziatu parentetikoaren kokatuko du, eta segidan (nahiz beste osagarri batzuen ondoren) aditzera eman nahi den ekintza, gertaera edo egoera adieraziko du. Aditzaren atzean, zama informatibo txikien duten elementuak edo kokatuko ditu, Garziari jarraituz (1997), «perpau abarrak» nahiz «esaldi abarrak»; hots, «mintzagai-galdegai» joko horretatik at gelditzen diren osagaiak.

Enuntziatu parentetikoaren mintzagaiaren segidan kokatze hau, gainera, lot dezakegu Hildagok (1997b) aipatzen duen marko modalarekin ere. Hildagoren arabera, komunikazio-legeek eskakizun dute esaldiaren marko predikatiboa eraikitzeke eginkizuna duten elementuak esaldiaren hasieran paratzea. Elementu horien artean kokatzen ditu bai elementu tematikoak eta modalak, bai esaldiaren aurreko testuinguruarekin lotura-zubia egiten duten elementuak eta baita esaldian jada ezagunak diren elementuak edota aurrerantzean ezaguntzat eman nahi direnak ere, ondoren honen gainean predikatzeke.

Guri interesgarri gertatzen zaigu predikazioaren marko honetan kokatzen dituela esaldiaren interpretazioa modalizatu edo alda dezaketen elementuak (1996e, 33). Izan ere, nola uka enuntziatu parentetikoek modalizazio mai-

²² Ikus, salbuespen gisa, goraxeago aipatu dugun adibidea: «Gisa horretako predikua, **eta luze xamarra aukeran**, da goian aipatu dugun Stanley Kramer'en film hau. (ZIN:193)».

lan duten eginkizuna²³. Predikazio-marko honen ondoren etorriko litzateke irazkina edo predikazioa.

Usu darabilen egitura komunikatibo honekin, gainera, pausaldiak markatzeko estrategia ere erdietsiko du. Subjektuaren eta predikatuaren artean pausaldia adierazteko puntuazio-markak (koma, esaterako) erabiltzea desgokia den arren (edo delako), enuntziatu parentetikoez baliatzen da pausaldi hori markatzeko, eta horrek irakurketa ez ezik ulerkera ere erraztu egiten du. (Zubimendi & Esnal 1993, Esnal 2008, 43).

Subjektuaren eta aditzaren artean komak –koma bat baino gehiago, alegia– idaztekoan, izan dadila koma-tartekoren bat adierazteko. (Zubimendi & Esnal 1993, 219).

Komunikazio-egitura horrekin batera, edo horren aurkez aurk, bada beste egitura bat, adibideen %18.58k jarraitzen duena: enuntziatu parentetikoaren aditzaren aurretik jarri ordez, »fokua + aditza» bikotearen ondoren kokatuko du.

B) Komunikazio-egitura 2

(Mintzagaia) + fokua + aditza + (perpau abar) + [E2] + (esaldi abar)

Mintzagaiaz gain, «fokua eta aditza» bikoteaz osatutako multzo errematikoa enuntziatu parentetikoaren aurretik kokatzen du: bien artean batzuetan ez dago tarterik eta beste batzuetan egon litezkeen sintagmak beste mintzagai batzuen itxura hartzen dute.

– HAMAIIKA NOBELA *bidali dituzte* sariketara –**hamaika esan nahi dut, hamar eta bat gehiago**–, itzuliak eta asmatuak. (LIB I: 49).

Komunikazio-egitura honetan argi ikus daiteke enuntziatu parentetikoaren kokagunea aditzaren eskuinaldera joan dela. Izango luke, bada, aditzaren atzera-kargak arintzeko estrategiarekin loturarik (Zubimendi & Esnal 1993, Hidalgo 1996, Esnal 2008).

²³ Enuntziatu parentetikoaren funtzio komunikatiboari buruzko berri zehatzagoa nahi duenak jo bezala A. Azpeitia (2010; 2011) lanetara.

C) Gramatikaren ikuspegitik bitxiak diren kokaguneak

Bi komunikazio-egitura horien alboz albo badira kokagune batzuk (joezatzat jo ez badaiteke ere) gramatikaren ikuspegitik bitxiak bederen gertatzen direnak; izan ere, sintagmaren egitura hertsia hautsiko du enuntziatu parentetikoak.

Nagusiki «Izenlagun + izenaren» arteko lotura da hautsiko duena (%6.41) eta gutxiagotan «postposizio-sintagma» (%0.64).

1. Izenlagunaren eta izenaren artean kokatzen duenean, ordea, oso kontuan izaten du enuntziatu parentetikoak ere bere ezker aldeko osagaiak bezala izenlagunaren marka gorde behar duela. Horrela, haustura hori leuntzea lortzen du eta begi-belarrientzat hain gogor ez gertatzea.

– Egonaldia hori, laburxkoa izanagatik, aski eta gehiegi izan du «llaneroen»–**hango zabaldietako gizon-emakumeen**– *hizkera* ikasi eta barra-barra egiteko. (LIB I: 51).

2. Postposizio-sintagma oso gutxitan eteten du (E1 perpaus lokabeek osatzen dutenetatik %0.64k, baina guztiak kontuan hartuta %0.34ra heltzen da soilik) eta haustura hau aurrekoa baino nabarmenagoa eta bitxiagoa gertatzen da:

– Ez dio axolabekeriaren pake gozoan bizi denari pake gozorik utzi nahi eta pakearen –**besteak beste**– *jabe* direnek ez diote berari ere barkatuko. (LIB II: 117).

3. Azkenik, fokuari eta aditzaren arteko bloke hori hausten ere badaki (adibide guztien %4.8):

– Zintzotu zen gerratean eta PAKEAN –**eta oparo, ez bide baitzituen itzuli ondasun ostuak**– bizi da, beste «katu» bat katua-renak egiten hasi arte. (ZIN: 187).

2. Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpausak osatzen dutenean

Oinarrizko enuntziatua maila bereko perpausak osatzen dutela diogunean, koordinazio hori juntaturaz nahiz alborakuntzaz gerta litekeela ez

dago dudarik. Corpuseko adibideek erakusten digute, ordea, juntaduraz baliatzen dela; koordinazio kopulatiboaz nahiz aurkaritzakoaz.

Pentsa dezakegu koordinaziozko juntagailua enuntziatu parentetikoaren aurretik nahiz atzetik joan daitekeela. Bi aukera horiek zilegi izanik ere, adibiderik gehientsuenetan (hiru adibidetan izan ezik), *eta* eta *baina* juntagailu-lokailuak enuntziatu parentetikoaren ondoren agertuko dira, nolabait oinarritzko enuntziatuari berriz eusteko eginkizuna beteko balute bezala:

[E1] + [E2] + <i>eta/baina</i> + [E3] edota E1 + [E2] + <i>eta/baina</i> + E1

Bi formulazioak dira zilegi; azken batean, oso zaila baita zehaztea oinarritzko enuntziatua maila bereko bi perpausak edo bi enuntziatuk osatzen duten. Are zailago, ikusirik *eta* eta *baina* juntagailu ez zik lokailu ere izan daitezkeela.

Adibide guztien %8.15ek hartzen du kokagune hau.

- Lagunek parre egiten diote **–neskatxa ez da aldamenean harro harro erakutsi nahi izaten ditugun horietakoa**– *eta* bere ama ere, «Noiz ezkondu behar duk»-ka beti ari zitzaion ama, ez du semea ezkontzeko bidean ikusteak gehiegi alaitzen. (ZIN: 151).
- Gai aukeraz zerbait esan daiteke (**arrantzari hiru hizketaldi ematea gehiegixko dirudi**), *baina* batez ere hor agertzen diren hitz-esaerak ez dira jatorregiak, maiz aski ezta dotoregiak ere. (LIB I: 109).

3) Perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko mugan

Adibide(guzti)en %18.57k erakusten digunez, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga horretan kokatzen du enuntziatu parentetikoa. Datuei erreparatu besterik ez dago jakiteko gune hau hautatzen duten adibiderik gehienak perpaus nagusiaren eta mendeko osagarriaren artean kokatzen dituela (%14.81adibide)²⁴.

²⁴ Joera horrek ere izango luke atzerakargak arintzeko estrategiarekin zerikusirik, galdegaia mendeko osagarria denean aditzaren atzera eramaten baitu.

– Poliki-poliki hasten da Maisu Juan ikusten –**horrelako zerbait gertatu bide zitzaion Sokratesekin jarduten zutenei**– erdi us-tela zela zuen jakin-ustea. (LIB I: 72).

Ugariak dira, horrez gain, baldintza perpausei nahiz kausalei dagozkien adibideak ere. Horieta, bai perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean, bai mendeko perpausaren eta nagusiaren artean koka daitezke²⁵. Batari eta besteari dagozkion adibideak pareko dabilta.

Datuek erakusten digutenez, gainera, perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga hori kokagune aproposa gertatzen zaio batetik pausagunea egiteko, eta bestetik (euskaraz menderakuntzaren marka formala oro har, mendekoaren bukaeran jartzen denez), perpaus nagusiaren eta mendekoaren arteko muga agerian jartzeko; hau da, perpaus nagusiaren ondoren mendeko perpausa non hasten den jakiteko. Horrek ere salatzen digu, bada, Mitxelenak enuntziatu parentetikoak estrategikoki kokatzen dituela; azken batean badirela diskurtsoan aurrera egiteko komunikazio-estrategia. Eta hein batean hor ere aurki ditzakegu euskal prosari atxiki izan zaion egitura «antikomunikatibo» horri aurre egiteko bitartekoak:

Maiz irakurri eta entzun dugun ideia da eraginkortasun falta nabaria dutela egungo euskal testuek, alegia, ez dutela lortzen idazlearen komunikazio-helburuak betetzea. Komunikazio-arazo hauek sarri lotu dira, neurri batean behintzat, euskal hizkuntzaren ustezko barne-egitura antikomunikatiboarekin eta hainbat motatako sendagaiak gomendatu dira: mintzatutik hurbilago dagoen euskara erabiltzea, eta bereziki, esaldi laburrak egitea; lotura-hitz iragarleak erabiltzea, *adibidez ezén, baizik eta, baldin eta, nahiz eta* [...]. Edonola, garbi samar dago gabeziak konpontzeko formulek azken finean zerikusia dutela perpausen osagaien antolakuntzarekin eta puntuazioaren erabilerarekin. (Euskara Berezituaren Mintegia, 2002).

²⁵ Perpaus nagusiaren eta mendekoaren artean, puntuazioari dagokionez, honako ñabardura hau atzeman dugu: mendeko perpausa nagusiaren aurretik agertzen denean, bien arteko muga enuntziatu parentetikoaz ez ezik, komaren laguntzaz baliatzen da; aldiz, perpaus nagusia aurretik doanean, ez.

- Mendeko perpausa + [E2] + (,) + perpaus nagusia
- Perpaus nagusia + [E2] + mendeko perpausa (komarik gabe).

- 4) Enuntziatu parentetikoak, oinarritzko enuntziatuaren eta mendeko perpausaren barnean

Corpuseko adibideen %10.76 daukagu egoera horretan. Hemen ere, oro har, perpaus nagusian bereizitako kokagunea da nagusi: subjektuaren eta predikatuaren artekoa.

- *Ulysseren ibilerek* –**adierazi nahi digute ia irudi bakoitzean**–era-kusten *digutena* hauxe da: jakinko etsaiei, Izadiaren indar itsuei alegia, gogor egitean dago gizonaren handitasuna. (ZIN: 147).

5. Ondorioak

- Azterlanean zehar ikusitakoarekin argi dago Koldo Mitxelenaren euskal prosan (Kritiketan behinik behin) enuntziatu parentetikoak distribuzioari dagokionez izan badaudela erregularitate batzuk, joerak markatzeko bederen baliagarri gerta dakizkigukeenak.
- Joera horiek komunikazio-estrategia batzuen zerbitzura daude; hau da, Koldo Mitxelenak enuntziatu parentetikoak estrategikoki kokatzen ditu eta, azken batean, badira diskurtsoan aurrera egiteko komunikazio-estrategia. Hein batean, estrategia horietan ere aurki ditzakegu euskal prosari atxiki izan zaion egitura «antikomunikatibo» horri aurre egiteko bitartekoak.
- Beraz, honetatik atera dezakegun ondorio nagusia honako hau da: Koldo Mitxelenak bere diskurtsoa modu komunikagarri batean atontzeko, enuntziatu parentetikoak kokaguneaz ere baliatzen da; hauen kokatze-gunea oso hausnartua dago eta ez ditu edonon eta edonola tartekatzen.

6. Erreferentzia bibliografikoak

ALBERDI, X., SARASOLA, I., 2001, *Euskal estilo libururantz*. Bilbo: EHU.

AZPEITIA, A., 2010, *Koldo Mitxelenaren euskal prosako diskurtso-estrategiak: enunziatu parentetikoak*. Deustuko Unibertsitatea (argitaratu gabeko tesia).

———, 2011, «Enunziatu parentetikoak: Koldo Mitxelenaren intentzio ironikoaren ispilu», *Gogoia*, 10, 21-54.

ESCANDELL VIDAL, M.V., 1993, *Introducción a la pragmática*. Barcelona: Anthropos.

ESNAL, P., 2008, *Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKARA BEREZITUAREN MINTEGIA, 2009, «Zer irakatsi euskal hitz-hurrenkeraz eta puntuazioaz? Zabaltzen ditugun ideien egokitasuna auzian». Zientzia Fakultatea (<http://www.ei.ehu.es>).

EUSKALTZAINDIA, 1985-2005, *Euskal gramatika Lehen Urratsak I, II, III, IV, V eta VI*, Bilbo.

GARZIA, J., 1996, «Puntuazioaren sintomatik sintaxiaren gaitzera», *Administrazioa euskaraz* 13, 19. (<http://www.ivap.euskadi.net>).

———, 1997, *Joskera lantegi*. Gasteiz: HAEE/IVAP.

HIDALGO, B., 1994, *Hitzen ordena euskaraz*, Doktore-tesia (argitaratu gabea)

———, 1996a, «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (I). Nola idatzi euskaraz modu arin, ulergarri eta aberats batean», *Hizpide*, 35, 39-51.

———, 1996b, «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (II). Euskararen hitz-ordena librea», *Hizpide*, 36, 21-27.

———, 1996c, «Euskal joskeraren mito kaltegarriak (III). Aditza maiz euskaraz esaldi hasieran», *Hizpide*, 37, 23-31.

———, 1996d, «Hurbiltze bat euskal hitz ordenaren tradizioari» (http://www.inguma.org/egiledatuakgakoa.php?egile_gakoa)

———, 1997, «Hitzen ordena euskaraz», irailak 22-26 (EIZIEk antolatutako ikastaroko apunteak).

KERBRAT-ORECCHIONI, C., 1986, *La enunciación. De la subjetividad en el lenguaje*. Buenos Aires: Hachette, 1993.

———, 1998, *Les interactions verbales. Approche interactionnelle et structure des conversations*. Tome I, Paris: Armand Colin.

OYHARÇABAL, B. 1985, *Les relatives en Basque, Département de Recherches Linguistiques* (D.R.L.), Université de Paris.

OSA, E., 1990, *Euskararen hitzordena. Komunikazio zereginaren arauera*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua.

ZUBIMENDI, J.R. eta ESNAL, P., 1993, *Idazkera-liburua. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitarapen Zerbitzua*.

Amorosen disputa

HARITSCHELHAR, Jean
Euskaltzain emeritua

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 833-846. Bilbo
ISSN 0210-1564

«Potaren galdatzia» lehenik, «Amorez errekeritzia» gero, bi olerki horiek erakusten dute nola ausartzen den mutila edo gizona. Urrats bat gehiago «Amorosen disputa» deritzan olerkiarekin mutikoak, azkenean bortxatzen baitu neskatila. Etxepareren X. eta XI. olerkiak batu behar dira XI.a X.aren segida izanez, erakusten duela zein gaizki, nausa, mespretxua eta mehatxuak baliatuz, portatzen den mutila.

Hitz-gakoak: hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

Después de la «Petición de beso» y del «Requerimiento de amor» el hombre o joven se atreve más y la «Disputa de amantes» se termina por la violación de la chica. Sin embargo, los poemas X y XI de la obra del poeta Etxepare no son más que un solo poema, el XI siendo la continuación de la actitud grosera del varón que añade al escarnio el desprecio y la amenaza.

Palabras clave: hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

Après la «Demande du baiser» et la «Requête d'amour» l'homme s'enhardit et «La dispute des amoureux» se termine par un viol. Toutefois les pièces X et XI du recueil du poète Etxepare n'en forment qu'une, la XI n'étant que la suite de l'attitude grossière de l'homme qui mêle à la dérision le mépris et la menace.

Mots clés : hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

These two poems, «Demand for a kiss» first, and then «Love requirement» both show how daring a boy or man is. In another development or step in the poem called «Lovers' quarrel», the boy finally rapes the girl. Nevertheless, poems X and XI of the work of the poet Etxepare have to be put together, XI being the continuation of X, to show how badly the man behaved, thus adding to the scorn and contempt.

Keywords: hurrantze, parti, utzi nazazu, bortxatu, ahalgeizuna, maradikatzen.

Irakurtzen eta, denbora berean, aztertzen delarik Bernat Etxepareren obra, nabari da ez direla nola nahika emanak olerkiak eta *Linguae Vasconum Primitiae* deritzan liburuak baduela bere egitura sakona, ongi asmatua. Badoa lehenik «Doctrina christiana» bere otoitzekin «Judicio jenerala»-rekin bukatzen dela. Doaz gero bi olerki: lehenak, «Amorosen gaztiguya»-k, ospatzen du amodio dibinoa, bigarrenak «Emazten favore» deritzanak, aldiz, amodio profanoa emazteari esker. Zubi gisa har daitezke bi olerkiak, gero, segidan, heldu baitira amodiozko olerkiak, sailkatuz mutikoaren joka moldeak. Alabaina, lehenbiziko lauek erakusten dute mutilaren herabea emaztearen aitzinean, bertze lauek (lau direlakotz enetzat eta ez bost) mutikoaren ausardia. Olerki autobiografikoa eta bi olerki euskararen alde daude azkenik emanak, salatzen dutela Etxepareren garai bateko bizia eta bereziki euskararekilako atxikimendu sakona, baitaki inprimatzeari esker jalgiko dela mundura eta mundu guzian ezagutua izanen dela.

Ausartzia

Hastetik bururaino mutiko eta neskaren arteko elkarriketaz egina da olerkia. Hasten da, bertze olerki batzuetan bezala, bi neurtitzeko ahapaldia-rekin. Mutikoa mintzo da goxoki neska otoituz, «uztazu» aditza delu leku-ko. Hitz guziek salatzen dute mutilaren helburua, neskaren lilluratzea, xarmatzea: «amore maite» deitzen du erakutsiz maitasunaren kalitatea, galdegiten diola «hurrantze», bat bertzearen hurbil edo kontra egoiteko.

«Hurrantze»/»partitze», bi joka molderen arteko jarrerari buruz mintzo zaio bigarren neurtitzean aipatuz partitzearen ondorio latzak: «damu ginate». Humilki, bainan jadanik dena lausengu, adierazten du hurrantzea dela gero zorionsua, partitzea, aldiz, zorigaitzeko ondorioa.

Ez da batere ados neskaitila berehala galdegiten diola urruntzea «parti gitezen», harek ere otoitzen duela maite duen mutikoa. Bi arrazoin baditu: lehena ingurumenarena, jendearen ikus moldea «bekaizten» hitzak salatzen duena eta bigarrena «irrigarri» izaitea eta, beraz, desohorez betea. Ohar gaitzen ahapaldiaren egituraz, bi errepikapenetan oinarritua.

«Amoriak: othoi, parti gitezen;
jendiak diradela hasi bekhaitzen,
laidok hartu gabe geldi gitezen,
jendek irrigarri gerta eskiten».

Alde batetik, «parti gitezen» lehen neurtitzean, «geldi gitezen» (laidorik gabe) hirugarrenean, «jendiak» edo «jendek» bigarren eta laugarren neurtizetan. Ingurumenaren beldur da emaztea, gaizki jujatua izatea, desohoraturik gelditzea. Hortakotz nahi du joan, utzi bere amorantea.

Ez dezake onart separatzea mutilak. Hasten da «Elas» hitzarekin erakutsiz zein hunkia den, nola dolutzen den. Berriz ere mintzo zaio «amoria» deituz, lehen ahapaldian bezala, adierazteko zein atxikia zaion eta segitzen «ene galduia» hitz lerroarekin. Hau da deitoratzeko oihua eta argi dago indar gehiago hartzen duela neurtitz berezi horretan, erritmoari esker, zatitua delakotz 2-4+5 eta ez 6+5. Oihu samina bi zatitan doa, hasieran bi silabakoa eta bukaeran bost silabakoa, azken hitza «galduia» indar handikoa delarik, hondatua, suntsitua balitz bezala.

Bigarren neurtitza «jamas» hitzarekin hasten da, «enoia» hitzarekin bukatzen. Iduri luke indar gehiago hartzen duela zuzenki gazteleratik datorren hitza enplegatuz, zin egiten balu bezala. Erakutsi nahi du zein goxoki dagoen beti amorioaren ondoan, labur direla orduak harekin denaz gero. Alabaina, «enoia» aditzak adierazten du elgarrekilako orduak ez direla aspergarriak, beti zoriotsuak direla. Ez dut ulertzen nolaz Patxi Altunak, bere «Etxepareren hiztegia»-n itzuli duen «enfadado, enojado, gêné» eta ez «aburrido», frantsesez azkenean «ennuyé» dion bezala, hau baita itzulpen egokia.

Ahapaldia bukatzen da galdera batekin «*Honein sarri utzi nahi nuzuia?*» Bi hitz behar dira azpimarratu. Lehenak «sarri» denboraren laburdura adierazten du, bigarrenak «utzi» markatzen duelarik bien arteko separatzea. Galderak berak, alde batetik agertzen du mutikoaren amodio sakona eta bertetik galdegiten du erantzuna, horretan datzala ere maltzurkeria.

Alabaina, neskak, berehala, aitortzen du bere sendimendua lehen bi neurtizetan. Lehenik «gerthuz» aditz lagunak baieztatzen du daukan mai-

tasuna eta gero «oneritze» hitzak errepikatzen du maitasunaren indarra. Bertze bi neurtitzetan, aldiz, joaite alderako bigarren arrazoinak indar gehiago dauka haren ustez: ez da dudarik Jainkoaren beldurra nagusitzen zaiola Jendearen beldurrari. Neskarentzat bekatuan sartua da jadanik «digizi» aditz lagunak «gu» adieraztearekin biak ezartzen dituela bekatuan.

Badaki zer erran mutikoak, berriz ere errepikatzen duela ahapaldiaren lehen neurtitzean «amorea» hitza, errepikatzek baduelarik bere garrantzia elkarriketaren hasiera honetan. Jostatzen da azalduz ez dela urrikaltzearen garaia. Gaztearen erronka da, hain zuzen, gaztetasunaren gozatzea, «carpe diem» leloari jarraikiz, bigarren neurtitzak garbiki salatzen duela:

«*Ienkuaz orhitzeko lekhu diguzu*»

Horiek hola, elgarrekilako harremanak segitzea bultzatzen du errepikatuz azken neurtitzean jadanik olerkiaren hastapenean ziona:

«*Orai partitzeko damu gituzu*»

aldaketa ttipi batekin halere, aditz laguntzailearena «ginate»/«gituzu». Batek «ginate» igortzen duela etorkizunera, bertzea «gituzu» aldiz orainera.

Jendearen esamesak lehenik, Jainkoaren beldurra gero, bekatuan hiltzearen beldurra, horrek oroitarazten du ifernua, sekulako zorigaitza. Biak ikusten ditu bekatuan «hilen bagina», bainan bere buruaz eta bere geroaz bakarrik axolatzen da: «*Damnatu lukezu ene arima*». Azken bi neurtitzek erakusten dute garbiki zertan dagoen: jakin dezala mutikoak ez duela balio lilluratzea («nitán engana») eta ez dezala segi lausengatuz, otoizten duela utz dezan:

«*Niri phorogurik eztidazula*»

Egia erran, azken otoiz honetan salatzen du neskek bere ahulezia.

Gero eta ausartago... bortxatzeraino

Dotzena bat ahapaldi dauka olerkiaren bigarren agerraldiak, azkenean antzerki gisa har daitekellarik bi gazteen arteko elkarriketa.

Alabaina, mutikoak senditu du neskaren azken otoitzak aitortzen zuen ahulezia. Hain zuzen, errepikatuz zenbat maite duen

«Nik nola dadukat amore zugana»

erraiten dio neskari, haserre izan orde, eder zaiola Jainkoari holako maitasuna. Mutikoaren jokoa da sinestaraztea ez dela beldurtu behar eta bi gazteen arteko amodioa gauza ona dela. Azken bi neurtitzetan, erdian diren bi hitzak dira lekuko, lehena «eder» etenaren ondotik, bigarrena, aldiz, «gaitzetsi» etenaren aitzinean. Neskak ulertzen du orduan eman dituen arrazoienek ez dutela balio izpirik.

Bien arteko eztabaidan badaki mutikoak irabaziko duela; neskaita, aldiz, hasten da otoizka aitortuz bere ahulezia. «Utzi nazazu» otoitza jalgiko da bere erantzun guzietan. Bortxatua izan baino lehen bost aldiz mintzatuko da neska eta bost aldiz gauza bertsuak errepikatuko ditu:

«Horlako lausenguz utzi nazazu»

dio lehen ihardespenean,

«Horlako erantzutez utzi nazazu»

bigarreanean,

«Otoizten nizaizu, niri uztazu»

erantzun honek erakusten duela hasia dela moteltzen. Laugarrena da lehenaren errepika zuzen zuzena:

«Horlako lausenguz utzi nazazu»

erakutsiz, beraz, ez dakiela gehiago zer erantzun.

Bosgarrena da azken oihua; neurtitzaren erritmoak 5+2+6 zatikatuz lehen hemistikoa balio handiagoa emaiten dio bi silabako hitzari «otoi» egiazko eskaria:

«Aldi honetan, otoi, utzi nazazu»

Badaki mutikoak zer nahi duen eta hortara doa arrazoinamenduari esker. Ikusi dugun bezala baliatu du neskak zuen Jainkoaren jujamenduarien bel-

durra, aldatuz osoki ideia, erakutsiz, aldiz, begi onez ikusten duela Jainkoak bien arteko maitasuna.

Bere erantzunean argi dago senditzen duela neskatilak zer den mutikoa-ren helburua. Badaki xoratu nahi duela hitz ederrekin: lausenguak dudarik gabe eta haien ondorioak, aitortuz, denbora berean, ez dela gai joko horren kontra joaiteko:

«Nola erhoturik narabilazu!»

erabili aditzak azpimarratzen duela samurtasuna. Bi aldiz otoiztuko du aha-paldi berean «utzi nazazu» lehen neurtitzean, «niri eutzazu» hirugarrenean, «utzi» eta «eutzi» aditzek adierazten dutela ez dela gehiago «parti gitezen» ziona elkarrizketaren hasieran. Aitortzen du, nahita ez, jokoaren nagusia mutikoa dela eta otoitza dela bakarrik daukan geriza.

Aditu du mutilak neskatilaren otoitza, nola galdegiten dion uztea, bien arteko lokarriaren giltza eskuetan daukala. Berriz ere, jadanik egin duen bezala Jainkoarekin, adieraziko du orain bera dela osoki estekatua, kasik esklabo gisa. Hasten da galdera batekin erasiatuz neska bere portaeraren gatik:

«Nola diostazu horlako hitza?»

ez duelarik onartzen eskaintzen dion amodioa eta horretan tematzen delarik. Erakusten du mutilak neska dela egiazko nagusia, kasik hobenduna, aditzek salatzen duten bezala «joan daraudazu» eta «gero gathibatu», alde batetik bihotza, bertzetik gorputza. Azkenean, aurkezten du bere burua osoki emana balitz bezala, egiazko esklaboa «gathibu» hitzak erakusten duena.

Bigarren aldikotz galdegiten du neskak, otoitzaren bitartez, aske izan da-dien:

«Horlako erantzunez utzi nazazu»

Mutil hertsatzailearen aitzinean pentsatzen du bertze jokatzeko manera. Asmakizun giroan jartzen da etxekoen beldurra aurkeztuz:

*«Gure etxian ohart badakizkigu
Biok jagoitiko z galdu gituzu»*

Jadanik aipatua zuen argudioa, jendeen erran-merranak, aldatzen du pixka bat aitamek gatziguaren beldurra aitzinatuz. Ikus daiteke ez dakiela gehiago nola erantzun.

Argudio horren aurka joanen da mutila. Nola erran dezake neskatilak barrandan dagoela jendea eta hori «bethi» ez duela deus bertzerik egiteko. Hori da mutikoak egiten dion galdera. Erakusten du orduan nola elgarretaritzen diren, «sekretuki» doalarik maitearen gana eta nola neskatilak hauta dezakeen juntatzeko garai egokia. Bada hitzen arteko joko berezi bat, jendearen ikuspegia bi gazteei buruz: «gugana», mutikoaren ibilera maiteari buruz: «zugana» eta neskatilaren joera biltzen delarik amorantearekin: «nigana». Urrats hori egina du orduan bertan «zu» delakotik «ni» delakora joan delarik «gu» delakoaren egiteko.

Argi dago neskak erantzuten diolarik senditzen duela lanjerra.

«*Pitxer ebilia hautsi diohazu*» erran zahar aire bat dauka. Ikusten du eta hala aitortzen «pitxer» gisa daukala bere burua, gauza bat erabilia egunero eta hausteko arriskuan. Alabaina, «hautsi» aditzaren pean dago kantu herrikoiak adierazten duena diolarik «*hegal petik lumaño baten galtzea*». Ez dezake onar desohorea, laidostatua senditzen delakotz, «laido handiz» aitortzen duen bezala. Otoitzaren bitartez «niri uztazu» botako dio mutikoari, azpimarratuz ez duela sekulan amore emanez, ez dela «atsegin» emaila.

Ulertu du mutikoak fermuki mintzo dela neskatila, baina otoiztearekin salatzen duela bere ahulezia. Orduan jokaeraz aldatuko da. Amorante kartsu bilakatzen da hasten duelarik bere predikua «Amore maitia» hitzekin. Azaltzen du bere maitasunaren berotasuna, ez dela ezerez hura gabe «*zutan diagozu ene bizia*». Hitz horien egiaztatzeko konparaketan sartzen da «zu» eta «herria»-ren artean, erran nahi baita pertsona bakar baten aitzinean egoiteak balio handiagoa daukala «herri» oso baten fama baino. Ba ote da laudorio handiagorik?

Gehiegikeria dudarik gabe eta ez du sinesten neskak:

*«Horlako lausenguz utzi nazazu
Ixil bazinite nahi nikezu»*

Bigarren aldikotz errepikatzen du ikusten duela mutikoaren jokaera mal-tzurra. Bainan ez daki nola erantzun berriz aipatzen baitu Jainkoaren beldurra. Jadanik errana zuen elkarrizketaren hasieran:

«*Bana Jeinkoaren nuzu beldurtu*»

erantzuna ukan zuelarik segidan:

«*Jeinkuaz orhitzeko lekhu diguzu*»

Hain zuzen gogoan dauka mutikoaren errana eta kasik hitz berekin mintzo da.

«*Jeinkoaz orhitzeko ordu lukezu*»

«lekhu» zion mutilak, «ordu» erantzuten dio neskak. Argudiotzat, otoizten duelarik uztea, adierazten dio bertze neskak ere badirela eta joan dadien haien gana. Argudio makala, ihes bidea, daukan ahulezia agertzen duela bai lehen neurtitzean «utzi nazazu», bai azkenean «niri uztazu».

Badaki mutilak eramaten duela partida eta jokaeraz aldatzen da. Balakari edo lausengari izan den bezain bat kaskail bilakatzen da orain bi galdera garratz eginez:

«*Jeinko beldurturik jarri ziraia?
Halaz despeditu nahi nuzuia?*»

Bigarren galderan «despeditu» hitzak agertzen du mutilaren hasarrea, gaitzitua baita osoki. Orduan botatzen dio azken hordagoa, maitale zena gerlari bilakatzuz:

«*Hebetik joan gabe ene buruia
Egin behar duzu ene nahia*»

Nola erantzun holako hitzei. Lehenik, galdera bortitz baten bidez, galdera horretan agertzen delarik lehen aldikotz «bortxatu» aditza. Neskatilak senditua du lanjerra. Protestaren ondotik jalgitzen da, azken aldikotz, beti errepikatzen duen otoitza. Neurtitzaren erritmoak salatzen du neskak daukan beldurra, durduzaturik dagoela (4/2/5):

«*Aldi honetan / othoi / utzi nazazu*»

Egiazko otoitza, egiazko eskaria.

Horren ondotik dator azken argudioa, hitzemanenez bertze egun batez hurranduko zaiola eta, orduan, emanen diola nahi duenaren egiteko baimena. Osoki nekatua, hitz estaliak baliatuz «nahi duzunori», neskatilak uste du bere maitalearen aztaparretarik eskapatuko dela. Debaldetan! Mutilak aipatzen du holako erran zahar bat:

«*Haraintzinakorik duzu errana*»

bigarren eta hirugarren neurtitzetan hedatzen dena, erran zahar ezagutua «carpe diem» idurikoa, oraina baliatuz, geroa ez baita batere segurra.

«*utzi dazanorrek eskuian duiena
nahi duienian eztakeiela*»

hizkuntza guzietan dagoen erran zaharra.

«*Un tiens vaut mieux que deux tu l'auras*» frantsesez, «*Prefiero un bien presente a uno por llegar*» gaztelaniaz gogoratuz ere Oihenartek bildu duela «*Gerokoa hobe ustezkoa, nahiago dut on oraikoa*», *Refranes y sentencias*-etan aurki daitekeiela «*Nahiago dot to bat ze amabi emon deiat*» eta Axularrek geroaz mintzo delarik nahi dio irakurleari erakatsi «*gero dioenak bego dioela*».

Erran zaharra airoski aldarrikatuz, mutilak botatzen du garailearen oihua:

«*Hitzak haribira, dugun egina*»

aurkatzen dituela «hitzak» eta «egina» hobetsiz egintza, «dugun» inperati-boari esker.

Neskaren auhenak entzun daitezke segidan datorren ahapaldian, desohoratua izan delakotz, ahalgea nagusitu zaiolakotz:

«*eman derautazu ahalgeizuna*»

dakigularik zer zen, garai haietan, birjinasunaren galtzea ezkondu aitzin neskatala batentzat. Diolarik:

«*Maradikatzen dut neure fortuna*»

neurt daiteke haren atsegabea aldarrikatzen diola mutilari:

«Zeren jin bainendi egun zugana»

Nahiz bere buruari mintzo zaion, erasiatzen du mutikoa denbora berean.

Nausa

Den bezala agertzen da mutila. Harremanetan zagoen neskatilarekin eta elgarretaratu direlarik bazuen bere ideia, asmatua zuen helburura nahi zuen joan. Nahi zuen lilluratu neska, hitz ederrez ausartzen zelarik. Emeki emeki, ikusiz ez zuela neskaren baimenik ukanen, ausartu da gehiago eta, azkenean, bortxatu du.

Neskaren erasien aurka joaiteko ironiaz beterikako mespretxua erakutsiko du. Hasten da «amore» hitzarekin, ez gehiago amore maite(a), bainan otoizten du neska harek egiten zuen bezala:

«Amore etzitela, othoi despara»

«othoi» horrek baduela trufa aire bat, doalarik bereziki «despara» aditzarekin etsimendua aditzera ematen duelarik. Galdegiten dio gero egon ditezen biak buruz buru zerbait baitu erraiteko:

«Honat begitartez itzul zakitzat»

Zer du erraiteko? Damu dela gertatu denarekin, urrikalkor agertu dela, hitz kontsolagarriekin aitortuko duela egin duen kaltea, ezkontzeko bidean daudela? Aitzitik, irri maltzur batekin dena trufa eta mespretxu konparaketa egiten du «adiskide» on eta «senhar» gaiztoarekin. Geroari buruz «ene baitan dukezu» erraten dio deblauki ez dela ezkontzarik izanen, ez direla senar-emazte izanen, «uzten» duela, hobe dela neskarentzat adiskidetasuna ezinez ezkontza tzar bat. Hala nola mutilak baztertzen duen neskatila. Bainan ez dut uste horretan bukatzen dela olerkia.

Egia da *Linguae Vasconum Primitiae*-ren lehen edizioan «ordu gaitzareki horrat zakitzat» agertzen dela bertze olerkien tituluak bezala eta, beraz, har zitekeen olerki labur baten titulu gisa.

Urkijo-ri esker, publikatu duelarik Etxepareren lehen edizioaren «fac simile»-a eskaini zien orduko euskaltzaleei aztertzeko parada. Lafon izan da Etxepareren obraren lehen ikertzaile zientifikoa.

Jadanik 1951ko lehen artikuluan «La langue de Bernard Dechepare» esplikatzan zuen «Doktrina Christiana» zela harentzat multzo bat eta «Amorosen gatziguya»-k bigarren zenbakiarekin zoala, orotara 15 olerki zirela.

Bertze 1957ko artikuluan «Sur la versification de Dechepare» garbiki baieztatzen du zerrenda osoa eta agertzen dira:

X. Amorosen disputa

XI. Ordu gayçarequi horrat zaquitçat

bi olerki balire bezala. Idazten zuen ere « *Les pièces X et XI sont en vers de 11 syllabes. La coupe est après la 6^e syllabe ; elle concorde le plus souvent, mais pas toujours (ainsi en 14 et en 37) avec le sens. Les strophes sont de 4 vers ; toutefois la pièce X commence par un distique. Le titre de la pièce XI est constitué par un vers de 11 syllabes.* »

Berriz errepikatzen du XI. olerkiaren titulua neurtitz bat dela, jadanik errana baitzuen 1952ko artikuluan «Notes pour une édition critique et une traduction française des *Linguae Vasconum Primitiae* de Bernard Dechepare» () deritzanean. Hona zer idatzi zuen:

« XI Ordu gayçarequi horrat zaquitçat *L'absence de toute ponctuation accroît encore l'obscurité de cette petite pièce. On ne sait même pas si les quatre vers sont placés dans la bouche de la même personne. Le seul point clair est qu'il s'agit d'une dispute. Ce quatrain dont le titre forme un vers, est écrit dans le même mètre que la pièce précédente. S'agit-il de la même femme ? Est-ce un épilogue de la pièce précédente ?* »

Hona, ene ustez, ikerle on baten lana. Aitortzen du iluna dela olerki tti-pi hori. Ez dakiela nor mintzo den, bainan ohar onak egiten ditu, «disputa» edo eztabaida dela eta neurtitzak hamaika silabakoak direla; are gehiago, egiten dituen bi galderak oso egokiak dira eta biei hona ene erantzunak:

« *S'agit-il de la même femme ?* » Erantzuten dut: «*Bai*». « *Est-ce un épilogue de la pièce précédente ?* » Ihardesten dut ere: «*Bai*»

eta beraz X. eta XI. olerkiek bat egiten dute. Har dezagun delako titulua:

«*Ordu gaitzareki horrat zakitzat*»

Mintzo da neskatila eta erantzuten dio mutilari honek galdegiten ziolarik:

«*Honat begitartez itzul zakitzat*»

«Honat» aditzondoa, erran nahi baita «nire gana» trufaz betea den gomita da. Hala senditu du neskatilak eta ahoan bilorik gabe ihardesten dio finki aurkako aditzondoarekin «horrat», hain zuzen aditz bilakatuz «horrat zakitzat», indar gehiago ematen diola erantzunari. Bertzalde «*Ordu gaitzareki*» esaera baliatzen du mutilaren madarikatzeko. Erantzun horrekin neskatilak bukatzen du elkarrizketa bortizki. Lafon-en itzulpena da: «*L'expression employée ici équivaut à esp. i Vaya V, enhora mala ! Allez vous-en au diable !* »

Neskak bukatu balinbadu, mutilak ez oraindik. Erran zaharrak dio: «*Apezak azken hitza bere*», mutilak ere nahi du azken hitza eta nausa segitu.

«*Orai behar duguia konkista berri*»

Baliatzen du hiztegi militarra «konkista», gaztelu bat hartzen balu bezala. Harentzat lehen «konkista» bortxatzea izan da eta galdegiten du bigarrenaren garaia etorria den. Bigarren neurtitzak indartzen du lehenak daukan nausa. Alabaina «gomita handi» doa «behar duguia»-rekin eta «handi» ize-nondoak, irri maltzurrez betea, erakusten du ez dela nor nahi neskatila, gauzak handizki egiten dituela, ez zaiola aski eztei eguna, behar duela ere biharamuna «Eztei iraganez» esaera itzul daiteke gazteleraz «tornaboda» hitzarekin, ezteien bigarren eguna Covarrubias-en arabera: «*Quando la fiesta de la boda, aviéndose en casa de uno de los consuegros se buelwe a hazer en la casa del otro.*»

Mespretxuz beteak dira azken bi neurtitzak:

«*Hanbat etzirade andere larri*
«*Merexi duzuna narzake sarri*»

Lehenean mutilak bere jujamendu lazgarria dakar, bigarrenean «narçaque» aditza da bereziki iluna irarkolak eginikako hutsa baita dudarik gabe.

Lafon-ek bi aterabide proposatzen ditu: « *On ne voit pas à quel verbe «narçaque» peut se rattacher. Erratum pour «narraque» «je dirais» ou pour «naçaque» «je ferais».* » Azkenean, bere itzulpenean hautatu du «narraque», Akesolok ere. Mespretxua ez da aski mutilarentzat, mehatxuaz ere baliatzen da; «merexi duzuna» aipatzen duelarik erraten du deblauki prest dagoela gertatu dena zabaltzea berehala, denek jakin dezaten neskatilaren desohorea.

«*Una mujer, gozarla y dejarla*» esaera hori entzun daiteke espainiar antzerki batean, Don Juan Tenorio batek eman lezakeena. Hau da mutilaren xede edo helburua eta XI. olerkia lotuz X.ri hobeki ulertzen da zer gizatzarra den mutila.

Antonio Arrue, el carlista que colaboró en el relanzamiento de Euskaltzaindia

Antonio Arrue, Euskaltzaindiaren suspertzean lagundu zuen karlista

Antonio Arrue, le Carliste qui collabore au renouveau d'Euskaltzaindia

Antonio Arrue, the Carlist who help relaunch Euskaltzaindia

MARTORELL, Manuel
Periodista y doctor en Historia

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 847-872. Bilbo
ISSN 0210-1564

Antonio Arrue, euskal ikasketa eta ikerketan esparruan pertsonahi nahiko ezezaguna izan da. Modu desegokian frankistatzat hartua izan da, aitzitik, 50 eta 60. hamarkadan zailetan, karlismoak Euskaltzaindiari eman zion bultzadaren isla izan zen. Arantzazuko Biltzar historikoan ekarpen garrantzitsu egin zuen, bertsolaritzaren garapenenan lagundu zuen, eta oro har, Euskaltzaindiaren lana eragozten zuten oztopo administratiboak gainditzen lagundu zuen.

Hitz-gakoak: Antonio Arrue, karlismoa, gerra zibila, euskal foruak, Arantzazuko Biltzarra.

Antonio Arrue tal vez sea una de las figuras más desconocidas en los ambientes dedicados al estudio, conservación y fomento del euskera. Considerado erróneamente franquista, representó en los difíciles años 50 y 60 del pasado siglo la contribución del carlismo al renacimiento de Euskaltzaindia, realizando una gran aportación a la misma en la celebración del histórico congreso de Aranzazu, en el desarrollo del bertsolarismo y para resolver las trabas administrativas que lastraban su actuación.

Palabras clave: Antonio Arrue, carlismo, franquismo, Guerra Civil, fueros vascos, congreso de Aranzazu

Antonio Arrue est peut-être l'une des figures les moins connues dans les domaines de l'étude, de la préservation et de la promotion de la langue basque. Considéré à tort comme franquiste, au cours des difficiles années 50 et 60 du siècle dernier il représenta la contribution du carlisme à la renaissance d'Euskaltzaindia, effectuant un apport important à Euskaltzaindia lors du congrès historique d'Aranzazu, apportant sa contribution dans le développement du bertsolarisme et participant à la résolution des obstacles administratifs qui gênaient ses activités.

Mots-clés : Antonio Arrue, carlisme, franquisme, Guerre Civile, fors basques, congrès d'Aranzazu.

Antonio Arrue is a somewhat unfamiliar figure in the sphere of Basque studies and research. He has been inappropriately regarded as a Francoist; yet during the difficult decades of the 1950s and 1960s he did in fact reflect the contribution of Carlism to the Euskaltzaindia. He made a key contribution to the historic Arantzazu Assembly, assisted in the development of extempore Basque verse making, and in general helped to overcome the administrative obstacles that were hampering the work of the Euskaltzaindia.

Keywords: Antonio Arrue, Carlism, Spanish Civil War [1936-1039], Basque charters, Arantzazu Assembly.

Si solo nos sirviéramos de la información suministrada por las redes de internet, Antonio Arrue Zarauz habría pasado sin pena ni gloria por el corto camino que recorreremos los mortales. Mirando las entradas a su nombre en esa ingente y globalizada base de datos que es Wikipedia, ni siquiera merecía el honor de figurar entre las «personas ilustres» de Asteasu, el pueblo guipuzcoano donde nació, más exactamente en la casa Apalagasasti del barrio Elizmendi, el 26 de marzo de 1903; el mismo pueblo que fue cuna del renombrado bertsolari Pello Errota, al que debió conocer y sus estrofas escuchar porque falleció cuando Antonio tenía 16 años; e igualmente de Bernardo Atxaga, que guarda un grato y reconocido recuerdo de quien, para muchos, es un total desconocido.

Y, sin embargo, nadie niega su gran aportación al resurgimiento del euskera y de la Academia de la Lengua Vasca después de la Guerra Civil. Pero el olvido de Antonio Arrue aún habría sido más escandaloso si Euskaltzaindia no hubiese publicado el año 2008 *Idazkiak eta hitzaldiak* (Arrue, 2008), una recopilación de sus trabajos históricos y literarios que prologó su amigo Antonio Zavala. Fueron sus hijos, con el apoyo de este jesuita vascólogo, quienes aprovecharon la presencia de Andrés Urrutia en el funeral de la viuda de Arrue, María Teresa Salazar, para sondear la posible publicación de los originales que conservaba Zavala. Fue a la salida de las exequias, oficiadas el 31 de octubre de 2005 en la parroquia donostiarra de San Vicente, la misma donde tres décadas antes también le habían acompañado a despedir a su esposo.

Tres años después, aparecería este interesante libro, en el que pueden encontrarse reflexiones sobre la unificación dialectal del euskera, un repaso a la situación de la poesía vasca al comenzar los años 60, un artículo sobre «el humor en la literatura euskérica», la apasionante aventura de la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas, un análisis sobre el valor social de la gastronomía y perfiles dedicados a personalidades como Juan Bautista Aguirre, Louis Lucien Bonaparte, Tomás de Zumalakarregi o el bertsolari navarro Bordel. Cuando *Idazkiak eta hitzaldiak* vio la luz, Andrés Urrutia afirmó que, de esta forma, se saldaba la deuda contraída con Arrue por haber ayudado a superar tantos obstáculos en esa difícil etapa y por haber encauzado Euskaltzaindia hacia su legalización al final del franquismo. Para entonces, la Caja de

Ahorros Provincial de Guipúzcoa ya había recogido también en *Jan edenak* los numerosos artículos publicados desde 1954 a 1975 en la revista *Egan*, de la Real Sociedad Vascongadas de Amigos del País (Ibargutxi, 2009).

